



ITXARO BORDA

Zergatik Atharratze

artikuluak



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

berria

berria.eus

ITXARO BORDA

Zergatik Atharratze

artikuluak

Artikulu hauek *Berriak* plazaratu zituen
Lauhazka sailean 2014 eta 2017 bitartean.

AURKIBIDEA

IDAZLEA	6
BILDUMA	6
HITZAURREA	7
MOZARTEK IKUSIKO BAGINTU	10
ETXEKOLATZETAN AZKENA	12
DRUMCLIFFEKO ZORABIOA	14
AMUARRAIN INBASIO BAT	16
ZABORRAREN ZAPOREA	18
DRIVING TINBUKTU	20
GALERAREN SEINALEA	22
ARRALDE PRO DOMO	24
CAFE BAR NANSOUTY	26
MUSIKAZ BLAI II	28
ZERGATIK ATHARRATZE	30
DIDAZ DIDAM	32
REMEMBER ANNA K.	34
ALOS GARDEN	36
MUNDUAN BAKARRIK	38
FRINTZ IKARAK	40
TXANKLETA HONDARTZAN	42
XALA, FOR EVER	44
GEROKO EUROTİK	46
GLOBOAK LAU EHUN URTE	48
MY GIRL IN THE STREET	50
DURASEN ESKAMAK	52
EXPRESSIS VERBIS	54
DYLAN IS DYLAN	56
AMETS GAIZTO ATOMIKOAK	58
LAU HATZETAKO BI LAN	60
LEKAROS NEGU AROZ	62
FIODOR 8	64
SAGANEN SAGA	66
BIHAR HASTEN DA BERRIZ	68
AMETS TOTALITARIOAK	70
ERREPUBLIKA PLAZA	72

IDAZLEA

Itxaro Borda (1959, Baiona) idazleak bere lehen lana 1984an plazaratu zuen: Maiatz elkartearekin *Bizitza Nola Badoan* izeneko poema bilduma. Geroztik hamaika bider, olerki liburuak eta nobelak tartekatu ditu bide luzea eginez euskal literaturaren alorrean. 2002an Euskadi Literatura Saria eman zioten %100 *Basque* (Susa) eleberrirengatik. Euskal prentsan kolaboratzen du 1977az geroztik eta hainbat musika talde askorentzat letrak ere izkiriatu ditu. Bere azken lana, *Odolak Su Gabe Diraki* antzerkia, 2017an atera da Maiatz argitaletxean.

BILDUMA

Zergatik Atharratze tituluarekiko artikulu bilduma honetan, literaturaren munduak egiazko bizitzaren zurrunbiloa gurutzatzen du, etengabe: Fiodor Dostoievski, besteak beste, azaltzen da Wachowkytarrekin edo Aimar Olaizolarekin errorik gabeko hitzen ingurutxoak dantzatzeko, euskarak zilegitzen duen gusturik hoberenean. Lekuak, jendeak, sentimenduak, politika eta poe(li)tika ere nahas datoz, guztia irakurtzen ahal delarik idazlearen ageriko egutegi baten antzera.

HITZAURREA

Narraziozile, saiakera eta artikulugile, poeta... alderdi guztiak estimatzen dizkiot Itxaro Bordari, baina, barka biezat irakurleak, bada alderdi bat ez estimatu baina inbidiatzen diodana, inbidia sana (bai segur!), baina errai beltzenetik aterea. Beti esan izan dut beso bat emango nukeela *La chanson des vieux amants* kantuaren egilea izatearen truke. *Niretzat kantugile on bat, entzulea hunkitzen dakiena, ezin baitaiteke beste ezerekin konpara. Letragile on bat kantugile bikain batekin elkartzen denean, kendu daitezela bestelako artistak paretik, haiena baita erramu boneta. Ildo beretik esan dezadan, beso osoa beharbada ez, eskua ere gehiegi esatea litzateke, baina behatz bat edo bi, bai, aise emango nituzkeela iruditzen zait Ez zaitetz joan oraindik kantuaren egile izatearen truke.*

Erregistro asko dituen idazlea da Itxaro, ez dago esan beharrik, eta beste erregistro bat asko estimatzen diodana da parodiarena, ironiatik baino gertuago dagoena sarkasmitik (egia da batzuetan krokodil bat duela bihotzaren orde). Parodiarako joera hori, bide batez esanda, bere lehen liburutik ageri da (aspaldiko Basilika hartan), eta nire ustetan, zorrotz eta finduz joan da %100 Basque bikainean goien gradua jo duen arte.

Estimatzekoak dira, halaber, Amaia Ezpeldoiren zikloko nobela guztiak, estimatzekoa da, aurreneko gauza, pertsonaia bera sortu izana, bere tasun eta keria guztiekin, baina haren ondoan, niretzat perla bitxia da beste narrazio bilduma bat ainitzez gutxiago aipatua: Zeruetako erresuma. Seguru asko, kontalari moduan gehien bete nauen Itxaro dago orrialde horietan.

Epe labur batez aritu ginen Itxaro eta biok, beste lagunen batekin elkar hartuta, Argian txalapartari, ttakun eta herrenka. Han baieztatu nuen lehendik neukan susmoa, Itxaroz neukan irudia ezin zela “Iparraldeko gure idazlea” leku

komunean sartu. Askoz gehiago zen eta da Itxaro. Gainera enteratu naizenetik Bermeo iparralderago dagoela Oragarre baino, bermatu egin naiz nire iritzian, geografia den zientzia horrek babestuta.

Zaila da Itxarori igartzea zer esango/idatziko duen. Edozein muturretatik heldu diezaioke zeinahi gairi eta modu ezusteko batean agertuko zaizu plazan jantzia (edo desgisatua). Baina bada gauza bat segurua izango duzuna Itxarorekin: ez zara beti ados izango, baina aukeratzen duen muturra beti izango zaizu interesgarri, beti jarriko zaitu zer pentsa, eta batez ere, nik gehien eskertzen diodana, beti izango da ezberdin. Jende gehiegi dago beti berdina jantzia gure plazan. Ezberdinak gehiago erakartzen nau.

Ezberdin du Itxarok hizkuntza ez ezik mundu erreferentziala batez besteko euskaldun arruntarentzat, Xabier Leteren koplak merezi izan zituen Antonio, Lorentxo edo Joxemari bezala Itziar, Lurdes eta Karmelerentzat ere. Ez zaigu garburarik jarri hegoaldeko gure plateretan, alferrik da. Baina hizkuntza eta erreferentzia munduaz gain, ikuspegia du guztiz ezberdina. Ikuspegia bazterrekoa duela esango dizu zenbaitek, eta ados nago bazterretik ari zaigula 'frankotiradore' moduan (ez dakit askorik gustatuko zaion metafora berari), baina plaza, gure plaza, sekula ez du begien bistatik galtzen, ez gurea ez mundukoa.

Bi plaza horiek (azkenean plaza bera da) nola aztertzen dituen jakin nahi duenak liburu hau irakurtzea besterik ez du (nire sarrera hau saltatu eta). Lagin aproposa da. Hortxe ikusiko du Itxaro Spinozaren Etikaren laugarren parte irakurtzen Atharratzeko Piellenian, kanpoan itsasorantz pausarik gabe doan Ühaitz salbaiari adi.

Ausart jokatu du beti Itxarok iritzia emateko unean, berak aitortu du inoiz "Simone Weil idazlearen eleen umilitate jakintsuaren aioxolbetik abiaturik" idazten duela. Ez da aterpe txarra horratik. Gogoan dut zer zirrarak astindu ninduen lagun

batek esanda 'Batasuna, borrokan' izeneko narrazioa Maiatz aldizkarian irakurri nuenean. Disidentearen ikuspegia eskertu nion. Plazan zebiltzan iritzietatik at ikusteak poztu ninduen. Itxarorekin harremanetan jarririk, beste bi narrazio erantsirik 'Hiruko' izeneko liburu niretzat gogoangarri bezain ez aipatuaren editorea izateko ohorea izan nuen. Ez daukat saltzeko.

Urteak herrestan bizkor doaz, baina ez da hain aspaldikoa Bakea eta bi sos artikulu/saioa ere, Itxaroren konpromisoaren neurria ematen duena, eta, beharbada, booktegian berrargitaratzea mereziko lukeena.

Zergatik Atharratze liburuxka honetan, literatur erreferentziek (hobe izango litzateke agian esatea: kultur erreferentziek) bidera egingo diote jauzi irakurleari, lapinak bezala. Itxaroren kultur erreferentziak ezustekoak dira. Alde batetik, hor ageri dira espero izatekoa den bezala, literatur klasikoak, Zola eta Tolstoi adibidez, baina gero zeinahi abisu eman diezazuke zuretzat guztiz ezezaguna den autore bati buruz, ongi lotua gainera, poliki paketatua eta erakargarri aurkeztua. Baionako karrika eta aldirietako giroa daki bi trazorekin deskribatzen, barrualdeko edozein herritatik (Oragarre beti dago hor) daki mintzatzen, Goenkale aipatuko dizu inpentsan, eta, halako batean, Aljeria agertuko zaizu edo Senegal, Katalunia, Britainia edo Asturias. Hizkuntzekiko jakin-min eri bat atzematen zaio bestalde. Iturbegietara jotzeko nahia baitezpada.

Aipatuak ikus ditzakezu, irakurle, liburuxka honetan bertan, liburu, kantu, film eta margo. Ez bazterrera bota. Aintzakotzat hartu. Ez zaizu lasto sua bezala hilko.

Inazio Mujika Iraola

2017ko urrian

MOZARTEK IKUSIKO BAGINTU

Baionako hirian zehar lasterrez berotu ondoan izpiritua lasai eta huts daukadala aitordut. Korrika gabiltza azkarrian odola zainetan ibai sentitzeko eta ezeren trukean irauteko prest garela berresteko inguruko jendarteak guztia diru balioz preziatzen digunean. Aldi berean, primitiboen antzera, lehen eki arraioa miretsi dezakegu ekialdetik iraitzen Santizpiritu zubia pasatzean. Batzuetan bideak trabeskatzen ditugunean tuta haserretuz ozentzen diren kotxe errabiatuen artetik iruditzen zaigu zuzen beti zuzen zihoan Paris-Texas filmean Harry Dean Stantonek jolasten zuen Travis oroigarriak bihurtuak garela. Ez gara gehiago gelditzeko gai. Tematze horretan etsipena eta esperantza txirikordan asmatzen ahal ditugu. Horrela debaldetan bezala lasterrez higitzen ikusiko bagintu Mozartek bihotzetan dugun musika txikia mila aldiz indartsuagoa moldatuko zukeen.

Mugimendua dugu amets. Egundainokoan. Adrenalina metatzen zaigu soberakin zainetan. Tentsio larriek amildegira eramaten gaituzte. Alta, bakoitzak dakien moduan, denbora parrasta bat daramagu geldirik eta jarririk. Ardurenean pantaila distiratsuen aitzinean. Ordenagailuek, tauletek eta urrutizkin leunek liluratzen gaituzte, bidea urrunera so eta oinez egitekoa dela ahanteraino. Maiz gertatzen da halaber berrogei eta bost minutuz bederen beribilean hertsirik eta geldirik egotea, Sutar eta Meignon artean adibidez. Latza da Lapurdi barnealdean bizitzea egun oroz Baionara lanera etorri behar denean. Arrangoitze, Basusarri edo Arbonako jendeek pazientzia ikaragarria dutela iruditzen zait, denbora galtzen ari naizela sinesten dudanean. Irakurtzea ezinezkoa da, gogoetatzea are gutxiago. Ehun mila Travis aspertzen dira autoko giderrak gaztigatuz Bernard Charbonneau geografo izugarriak behin marrazturiko *hommauto* edo gizauto hibridoa bilakatzeak. Abiaduraren kultuak hats bahitura eta malgorkeriara garamatza argiki.

Etxe aldaketa bete-betean nago. Maubec karrikan ditut jadanik Dostoievski, Woolf, Saizarbitoria, Judith Butler eta Proust. Besteak beste. Eskumenean ditut oraindik Monique Wittigen *Les Guérillères*, Marguerite Durasen *Outside* artikulua bilduma eta Katixa Dolhare-Zaldunbide iparraldeko idazle berriaren *Biribilgune* nobela. Durasen perla zorrotzak irensten ditut andregaiak igurikatzen dudanean Santa Gurutze auzoko Gaskoien Plazaren saihetsean. Eta gero biak, Rachid kozinari trebeak apailatu kebab zapoetsuz asetzera lehiatzen gara, Katixa

Dolhareren eleberriko orrialdeetan aurkitzen bagina bezala. Meaux eskualdean. Izenik gabeko deserri gatazkatsuan hots. Alde batean Disneyland eta bestean Roissy Aireportua.

Manex-Erdozaintzi-Etxartek *Gauaren Atzealdean* aspaldiko liburuan Pariseko giroa jorratu zuenetik nehor ez zen Katixa Dolhareren moldean horrela *banlieue* anitz eta gogor horien zirrikituetan sartu, bereziki enpatia amultsu ukigarria papereratuz. Xuka erabiltzen du narratzaile nagusiak, behiala Chevénement ministro aho-zabalak mespretxu txirrista batekin *sauvageons* deituko zituen hurrekin solastatzeko. Gazte-Luma saria erdietsi duen obra honetako pertsonaiak oro biribilgune batean daude aiduru, beraien baitako ilunak argiratu ezinik, geldoan, mundua kurritzen baldin badute ere. Nabari da egoera zaildu egin dela egile biek azpatu garai luze horretan.

Behereko egoitzako neska txikia jadanik negarrez ari arazten dute. Lapurdi erdiko lo-hiriak erabat husten dira Baionako zubiak blokatuz. Irainak, laidoak eta berantetsiak aditzen dira plastikoz osatu kotxeen aizolbeetan. Irratiak berriak bihikatzen ditu asun-ura hurrupatzen dudak bitartean. Mozarten melodia batez gogoratzen naiz, Travis hil zorian aurkitu zuten, zuriz tindatu genuen atzo eskailera azpiko sotoa maitaleak eta biok, Pannecau karrikako trabestiak agurtu ninduen menturaz azken aldikoz eta Monique Wittigen hitzek urratu zidaten goiza: *erraten dute, har ezazu behar duzun denbora, hizkuntza berria bilatzen duen espezia berri hori kontsidera ezazu. Haize handi batek lurra erraztatzen du. Eguzkia altxatuko da.*

Kopetan isurtzen zaidan izerdia idortzen dut esku-gibelaz.

ETXEKOLATZETAN AZKENA

Mila bider ematen ahalko diogu munduari bira, urratsek beti abiatu garen harpe eskasaren sarrerako ate kantoira ekarriko gaituzte: lehena, etxekolatzetan azkena da, eta alderantziz. Gelditu ezin. Ideia borobila neukan gogoan behin SUD-Rail eta CGTko tren gidariak greban zeudela Pariserako bidaia egin nuelarik David De Souza Blayeko poetaren konpainian. Eguna ustiatu genuen ibilian. Gorriak ikusi genituen handik itzultzeko. AHT-ean higatu hamar orduekin trenez zamatu ipuin luze eta herdoiltsua idatziko nuke. Barkatu, oker nabil: AHT horietan herdoilik ez da.

Alaiina erantsiko zukeen, loriatua, Gerezieta izeba zenak.

San Sulpizio elizaren barnean kausitu nintzen beraz buruaren inguratzeko betarik gabe. Zeruan zeharreko eguzkiaren lekua iragartzeko *gnomon* ospetsua bilatzen nuen, meridioa eta obeliskoa. Argi arraioak, ezpata meharrak bailiran, gurutzatzen ziren arraiki. Iruditzen zitzaidan *Da Vinci Code* nobelan urtzen nindoala, *bazko gauerdi ondoan* sarraskia konplutua zela arras. Denbora setiatu nuen ustezko amets gaiztotik jazartzeko. Gnomon delakoa hargatik ez zen piztia bat, ez zen mehatxu bat, ez zen izu-birla bat. Fikzioaren baheetatik iraitzi bizitza baizik ez zela erran nuen nirekiko kanpoko berotasun epelera jalgitzean. Han nuen adiskidea aiduru. Nire barruko menturaldi ankerrik ez nion aipatu. Zer gerta ere.

Pariseko plaza horretan bertan idatzi zen frantsesezko literaturako libururik harrigarrienetarik bat. Edozein mintzairatan paperak beltzatzen ditugunon desioa Georges Perec-en 1975ko *Tentative d'épuisement d'un lieu parisien* obrako esperientziaren errepikatzean datza. *Café* baten eguteraan edo San Sulpizioko iturri monumentalaren maldan jartzen zen, bazter galde eta trabetatik urrun, ikusten, entzuten, usnatzen eta sumatzen zituen gauzak oro azal urdinarekiko karneta txikian etzateko. Orrialdez orrialde zihoan denboraren nostalgia eraikitzen zuen. Handioski. Etxez aldatzean atzeman dut Perec-en perlatxoa. Eta geroztik, pirtta-pirttaka, literatura joko antzera baino ulertzen ez zuen erraldoiaren hitzak irensten nabil.

Santizpirituko Errepublika plaza trabeskatzen dut jada egunean lauetan. Perec-en hatzetatik lerratuko nintzateke ausartzen banintz: Senegaleko Modouren aldamenean eseri, orroaz ari diren gazteetatik urrundu, A2 eta A1 autobusen dantzak jarraitu, autoen leiho apalduetatik heltzen zaizkidan musikak zehaztu, heavy metal edo gehienetan teknoa dela oihartzen, astuntzen nauen ni-az hustu eta hondarrean pilpiraz lehertzen doan munduaz bete.

Bakartasuna gustatzen zait baina bihotz ukatuen nahaspuloak gustatzenago zaizkidala aitortu dut. Modouk Mbengue agurtzen du eta saldoek Aljeriaren futboleko garaipena ospatzen dute geltokiko aparkalekuan. Deus galtzen ez zuen Georges Perec-en begia oihartzeko zen Errepublika plaza eta zirristatzen zaizkion karririk ez direla emazteen eta nesken koka-leku zehatzenak. Bat bera ere ez da ageri, non ez den goitik behera belatua eta oihalez estalia: Sheherazadek gaurkoan aurpegia gorderik behar du.

Igela argitaletxeak hain zuzen atera du Georges Perec Oulipo literatura esperimentalaren aldarrikatzen zuen taldekidearen obra berri bat euskaraz. *Gizon bat lotan* deitzen da liburua eta Juan Luis Agirreren eskutik datorkigu. 1967ko lana da *L'homme qui dort* nobela eta hirietako bakartasunak pentsamendua zertaratzen duen kontaketa duen ederki. Narratzailea gristasunez troxatu eleberriko pertsonaiari hikaz mintzo zaio, solaskide soila bailuen. Idazlearen biografian oinarritzen dela diote batzuek: etengabe lotan dagoen gizona ikasle garaietako Perec da. 1974an filma bat bildu zuen Bernard Queysannek Perec-en laguntzarekin.

San Sulpizioko meridioak egunerokoak erdiz erdi trenkatzen ditu. Ez dugu inora joateko premiarik. Errepublika plazako jargia batean zurrungaz ari da behialako mozkorra. Bihar goizean ez da ezertaz oroitu eta agian hainbat hobe: *enparantza kasik hutsa dela dirudit (baina badira bederen hogeitau bat izaki nire ikus alorrean)*. 63 bat.

Zerrendak iraupenaren ardatzak dira.

DRUMCLIFFEKO ZORABIOA

Euskal Herrian ez dakigu non ehortziak diren idazle kuttunak, horrelakorik baldin badugu behintzat. Jendea jende dela orroatzen duen sozietate salbai bateko umezurtzak gara. Borrokan eroriak ez badira, hilek eta hilotzek ez dute baliorik. Mossen Bernat Etxeparen hatzetatik galtzen saiatzea aski da ohartzeko Garaziko ingurune handiosetan ez dela hipotesiak baimentzeko ere den mendreneko hatzik, Eiheralarreko elizaren atarian idazle nafarraren ohorezko marmolezko plakañoa aurkitzen den arren. *Yes* hori bai. Orain arte, naski, idazle haboroheenak apezak edo notableak ziren, lokaliza errazak beraz.

Liburuaren merkatua osatzeak halaber ez du memoria lantzerik zilegituko. Historiaren haria ebaki da neoliberalismoa iragana ukatzen hasi denean. Merkatua amnesia iturri dela ikasten ari gara denbora joan ahala. Ximixtaren abiaduran aitzinakoa ahanzten dugu, azken sortuaz edo plazaratuaz buru-belarri axolatzeko. Agian noizbait guk ere *Total Recall* filmeko Quaid pertsonaiaren moduan sasi-hiriko klinika pribatu horietarik batera zuzendu beharko dugu, moltsa hantuk besa pean, beraien izena eta izana merezi duten oroitzapen aberats batzuk garunetan txertatu arazteko!

Islandia, Italia eta Irlanda bezalako herrialdeek garatzen dute idazle zenduen oroitza. Karriketan idazki eta berunezko tailuak begiesten dira, liburutegiak kafetegiak direla eta maizenean, erdi arotik datorkien literatura, herri aberastasunaren zatitzat daukatela. Yrsa Sigurdardottir, Sjon eta Arnaldur Indridasonek anitez gehiago egiten dute Islandiaren ospea emendatzeko Reykjavikeko edozein marrazo aferagile hartzituk baino. Danteren ondorengoak Europa osoa inspiratu zuen eta Irlandako mirariez zer? James Joycen *Ulysses* nobelak, -noiz euskaratuko da osorik?- mundu mailako literaturaren norabidea erabat aldatu zuen. Dublin eta Sandycove Leopold Blumen eta Stephan Dedalusen aztarnez emokatuak dira.

William Butler Yeats (1865-1939) jaio zen hirian lurperatua izan zen Frantzia hegoaldeko Roquebrunen hil eta hamar urte beranduago, magia, legendaz eta Ben Bulben menditik isuri lainoz troxatu Sligo County hartan zehazki. Poeta trebea, argi-zirrinta zelden abeslari sutsua, Pazko Errepublikanoen laudatzaile minbera –*a terrible beauty is born* izkiriatzen zuen 1916ko irailaren 25ean-, maite zuen Maud Gonnekin sekula biziko ez zen erromantiko sufritua, Thoor Ballylee dorrean kabitua George Hyde-Lees andrearekin ezkondu eta herritik kanpo azken hatsa tepua eman zuena.

Uste gabetarik, Drumcliffeko hilerrian gara. Arrats apalean. Eguzkia sartzera doa urdinezko auraz uherturiko tontor karratuaren atzean. Harrigarria da: bide-seinale beilegiak *uaigh yeats* dio, *Yeats-en hobia* irish mintzairaz alegia. Hilerrian, aita semeak ari dira, epaigailu baten burrunbaz, belar soberakina mozten, emazte zenbait, kopetak makur, horma grisezko elizatik jalgitzen diren bitartean. Irlandako beleak entzuten dira harramantzaz. Sarreran, burdinan moldatu kuzkurturiko izakia azaltzen da *he wishes for the cloths of heaven* poema lurrean bihikatzen.

Yeatsen hilobia soila da, iluna. Bertan dago 1968an beste mundura joan George emaztea ere. Eta soa altxatzean agertzen zaigun epitafioa anitzetan irakurri dugu poeta irlandarra aipatzen zuten liburuetan. Irri gogoa piztu zitzaidan une hartan: hozki begira iezaiozu bizitzari, heriotzari. Zaldun zu pasa zaitez! Poetak, betierekotasunaz gozatu arren, ez dio bidaiariari bizitza ala heriotzarekiko erantzun izpirik emango. Hobe agian Maureenek adelatu *porridge* lekedatsuan arrapostu existentzialistak bilatzea!

Gaua erori zen Drumcliffeko hilerriaren eremua irentsiz. Beleak are ozenago tematzen ziren, zeru ertzean Ben Bulben ezabatuz zihoan, gurutze gaeliko erraldoia bermatu zitzaigun larderiatsu. Haur ebatsien, maitatzeko tristuraren eta Dublineko Posta Nagusiko oldarraren poetaren hitzak mailukatuz: *but I, being poor, have only my dreams... tread softly because you tread on my dreams.*

Eta Guinness beltzaren hagna, Sligon ...

AMUARRAIN INBASIO BAT

Uste nuen paperak aurtiki eta eskua gorde zebiltzan komandoen aroa bukatua zela. Aberri egunetan geunden bizkarrak ostatuko barrari emanak, solasez hordi, bat batean jendetza urratzen zuen giza ximixta susmatzen genuela, *Ilido* aldizkari klandestino, batzuen ebanjelio sakratua, ahurtaraz barreiatzen. Irudi luke jada, zenbaiten nostalgia azpimarratu gabe, egiteko era horiek berunezko mendeetako jokamoldea direla.

Larunbat eguzkitsu batez, bobo zekenaren maneran, Baionako merkatuan nintzen Errobi hegietan. Gaztainak erostean, boz ezezaguna sumatu nuen: aizu, hara nire liburua, zuretzat... gauza bat nabaritu nuen zakua astuntzen, bozak liburua aipatu zuen baina pistola ere izan zitekeen! Daramadan bizitza fikziozko uhin errepikatuegia da eta nobela beltz gehiegi irakurtzen -eta noiztenka, idazten- dut. *Matrix* edo *eXistenZ* ez dira nire osasun mentalaren zaintzeko joko egokiak.

Ahotsaren jabea ikusi zuenez galdatu nion lagunari, hark ezetz adiskide batekin mintzo zela anartean, gero zakuan, tipula, baratxuri eta gaztainen gainean zetzan liburua begimentzen nuela: amuarrain plantan kuzkurturiko izaki marraztua zekarren azal zuriak, leuna zen, gogorra, frantsesez izkiriatu orrialde parrasta batekin. Harridura biderkatu zitzaidan, egilearen izena arrotz nuelako erabat: Johann Vinay-Villanua Pauen sortua zen duela hiru hamarkada eta Aspe ibarreko Bortza herrian zeuzkan erroak, artzaina ogibidez, poesiak harilkatzen ditu eta gaur egun Baionan dago.

Istorio osoa kontatzen dut literaturaren bide misteriozkoa, Jainkoarena bezain, zula ezina dela erakusteko, merkatu monolitikoaren aizolbetik hara jazartzen ahal zaiola irakurleari, eta bereziki, umiltasun apurra harrotuz, ez garela orojakitunak munduratu sentitzeko. Laugarren orrian hedatu Aspe izenak begiak argiz ito zizkidan, ibar ilun, hertsu, kementsu eta bizitorea anitz maite dudalako aspaldidanik: denboraz eta oinez, sasi hegietako sagar makatuak dastatu nituen, abandonu mota motelaren ikur erdi ustelduak bailiran.

Maulen hazi da *Astobelarra* argitaletxea 2013an, Laurent Caudine mitikiltar kronikariaren apuñatik. Testuak eskualde hauetako bi hizkuntza nagusietan publikatzen dituzte, natura, jakintza, Zuberoko kultura eta aburu-sailak ardatz. *Mozaik* atalean atera da Johann Vinay-Villanuaren obra berria. Carolina Herrera gaztearen *Sombres mascarades* polizia fikzio lana halaber *Astobelarra* zigiluaz jantzirik datorkigu.

Marie Cosnay Baionako idazle ospetsuaren atzitza dakar Yohann Vinay-Villanuaren nobelak. Ez zezakeen geriza edo ama-besotako hobeagorik atzeman literaturaren sarraskijokoan ausartzeko. Audrey Hodappek irudi poetikoak egin ditu, zuri-beltzean, arrainaren begiak eder-ederrak direla ziurtatzen digun abestiaren neurriari atxikirik, zeruan gora hegalez doazen amuarrairen mitologikoen hatzetatik hain zuzen ere. Liburuan parte hartu dutenek, artisau zoharren antzera, ekiteko eta egiteko astiaz gozatu dutela garbi da.

Hamahiru urteko mutiko talde baten udako oporretako bizipenak bihikatzen ditu eleberriak, arrantzan, basihizian, baloiaren gibeletik hatsanka lasterrez eta nerabezaroaren axola gabezia sentimendua garatzen dira, hitzez hitz, nabaritzen dela bederazko eleen gibelean, mehatxu eta lanjer elkorra, etorkizunaren beldurra, Aspe ibarra eta Ansabeko andere orratzak noski idatziaren erdiko pertsonaia nagusiak direlarik. Herrietako adineko konkortuen solasak entzuten dira berdin bearnesez, bai eta gazteleraz edo Zuberoako euskara pindartsuaz. Gure mendi jendetsuei eskaini oda gustagarria eta minbera da hondarrean.

Askok, nolabait, jasan dugun gizarte aldaketaren muinera eramaten gaitu Yohann Vinay-Villanuak, saldarekiko milika-lapa ozenak eta garai batetik hara, guztien garunak gatibatu zituen telebistaren sukalde-mineko presentzia aitzaki: *à l'heure du souper, la plupart des enfants écoutaient religieusement les lapées bruyantes des vieux sur un fond sonore de journal télévisé.*

Garbura eta globalizazioa, laburpen kiratsa.

ZABORRAREN ZAPOREA

Akkraiko zikintegietan dira teknologia berri urguilutsuon hondarrak: mugikorrak, ordenagailuak, a pantaila distiratsuak eta musika entzuteko tresna gero eta txikiagoak. Goizetan, euri tropikalaren azpian, suteetarik urrina mikatz, zola heze eta kutsatutik lurrina altxatzean, haurrak makurtzen dira metalak, plastikoak eta osagai elektronikoak biltzeko. Hamar urte dituzte. Irriz ari dira. Dantzan. Maskarik eta eskularrurik ez dute molekula hilkorretarik gerizatzeko. Hilerri digital horiek araz karrakatuz apurrek familiak iraun arazteko baliabideak harrapatuko dituzte. Gerrako edo merkantziako ontzi etenduen karkasak aldiz Indiako lehorretan azkentzen dira, petrolio putzu bihurtzen direla hurbileko itsasoak. Milaka itzal konkorrin zintzuratzen dabilta, burdinak eta egitura baliosak errekueratuzko, amianto, irratibitateak ala gainerako ekai zitalak partida dauzkaten arren... adibideak biderka ditzakegu, planeta zabortege erraldoia baita eta itsasoa gure (zar)ama.

Eztabaida handiak sortzen dira zaborrak ardatz. Kontsumo gizarte hanpurasaren arazorik handiena da, ez bakarrik literarioa. Prentsa eta erramerranez datozkigun berrien arabera Lapurdi jendetsuaren zatarren ehorztegi irudikatzen da Benafarroa-Zuberoa desertifikatua. Ehorzteko, edo anitzez merkeago denez, zeru-irekian metatzeko, keak eta urrinak barreiatzen direla bazterretan arraiki Akkrako sasi-hirietan bezala. Argazki postindustrial ederrak hartzen ahalko dira, hego haize azkorrietan, kiratsak eta isuri izenda ezinez gorri ibai hantuko direnean elge, pentze eta larretan. Barnealde etsituak alaitzeko etorkizun panpoxak iragartzen dizkigute. Eta errentabilizatzeko... *Alaina* erantsiko zuen Gereziatoko amaren kusi kokinak.

Hirietan gaudenok ez dakusagu beti argi zaborrarena. Etxeetarik kantari jaisten gara poltsak ontzietara botatzeko, Aimar Olaizolak lau eta erdiko txapelketako pilota txapa gainera egingo lukeen bezain prestuki. Erraz(egi) gabiltza: paperak, janari iraungituak, lur sagar azalak, plastikoak, makilatze gailuak, kartoiak, errautsak, denak batera eta bost axola. Karriketan zakuak, doi-doia hertsia, tapalakatzen dira espaloietan, zakur miazkarien meneko. Ostika bat eta zaunka bi, behialako bost axolaz gain. Ukigarria da aurrerapena, ukigarria zaborraren biderketa ahalmentzen duen garapena, garapena delarik zorionaren giltza Europaren ohitura ekonomikoen magalean. Max Richteren *Infra* musika zatiko talkia txikatxikaz aditzen da ezinbestez, sokorri eske.

Irakurleak erranen du arrazoiekin hau poesia dela. Nehork bere baratze kantoian onartzen ez duen zaborraren poesia dela ihardetsiko diot nik. Bat gatoz alabaina zaborrak ekoizteko orduan baina lurperatzeko tokia bilatzen hasten direnean, katiminian maizenean, herri aukeratuetakoez deus ez dakitela, ez dugu horrelakorik desio, jainko maiteaz oroitzen garela tenore zehatz eta anker horretan. Katastrofe mutua da botere eta ezagupenaren aurarik ez duen herri isil, kasik ahantzi baten bizkarrera edozein zabor-sindikatueta arduradunen erabakiaren ezpata erortzen denean. Destinoaren jokoa aitzinetik bilbatua da, indarrez, behatz ttittila mugitzeko betarik ere ez dela!

Oragarre da dagoeneko harrapariei eskainia. Hogeita hamar hektareako lurperatze eremu pare bat begimenduak dituzte, auzapezari gaiarekiko diskrezioa amoinatuz. Alor horretan, bederen, udalburua ez da kikildu: iragan astelehen arratsean lehen bilkura bat antolatu zen berrehun eta berrogei herritarrek Sarrikota Peko *Baserri Garbi Baten Alde* elkarteko kide zenbaitekin. Idatzirik ez bada, zurrumurruak ugariak dira, burtzoratzera. Gizonezko askoren artean emazteek omen zuten hitza eta kemenik bizitorea erakusten batzarrak iraun zuen denboran. Proiektuaren aurka daude guztiz gehienak, ingurumenarentzat zaborren lurperatzea baita azken beltzeko aterabidea, eta luxerako kutsakorrena. Zain eta prest egongo dira...

Trastu ginenok trashtu nahi gaituzte.

DRIVING TINBUKTU

Jerusalem eta Tintera adina erdikoia den Tinbuktu hiriak ametsak harrotu ditu mendeetan zehar. Lur horailezko egoitzen maldan gurutzatzen dira fede ezberdinetako beilariak, gatzaren bidean kulunkaz dabilzan gamelu karabana jabeak, seduzitzaile amorratuak eta basamortu haizetsuen isiltasuna desiratzen dabilzan bakanak oro. 2012ko apirilean, harrituak, jarraitu genituen Mali iparraldeko hondarretan metatu islamistak, Ansar Dineko gudari tuaregek lagundurik, Tinbuktu setiatzen, matxeteak eta metrailetak ahurretan, alde orotara tiroka, meskitetan sartzen, hango egur beltzezko ikurrak aizkora kolpe haserretsuz puskatzen. Humanitatearen ondare kontsideratu esku-izkribu anitz funditu eta xehakatu ziren orduan. Noski, urrutizkin mugikorretan gatibatu *mekreanten* aurkako garaipenaren sekuentziak sare sozialetan zabaldu zituzten ausarki, arrakastaren boladari eutsiz, telebista pantailetan. Tinbukturen konkistak ikusgarria behar zuen. Eta hala zen.

Zutabea osatzen ari naizen goiz ilun honetan Ali Farka Toure erraldoiak Ry Cooderekin grabatu *Talking Tinbuktu* albumeko musika balantzaria hautematen dut: desertua itxuratzen dut, hiru ehun eta hogeita hamahiru sainduen hiri nagusia, burua bubu urdinez troxatuekiko tuareg zainartak eta negu etengabea abesten duten peuls desjabetuak. Ahantzi gabe dogonak, bozoak, bamananak, banbaraz, tamaxekez eta frantsesez matazaturiko arabiarrez mintzo direnak. Beti ihesean, alde batera zein bestera makurtzeko arriskuan. Tinbuktuk Afrikako New York ematen du. Nolabait, eta zero-karraskatzailerik gabe.

Maliko hirietan hiriena gogoan nabil, hamar urte bete nituenean Parisko osabak *Voyage à Tombouctou* izeneko bi liburuak oparitu zizkidanetik. Bere bidaia xeheki idatzi zuen René Caillé (1799-1838) mandingaren lurretatik bizirik ateratako lehen europarra zen. Musulmana zela sinetsaraziz gordean zebilen *Cailléren etxea* bisitatu daiteke oraindik. Garesti ordaindu karabana ezberdinekin eta doi doia elikatuz Sahara eta Tenere zeharkatu zituen Fezera iristeko, unatua eta eri kartzelatua. Kolonizatzaile militarrei xendrak irekiz, Cailléren hatzetatik, Heinrich Barth (1821-1865) alemana berdin heldu zen Tinbuktura 1853an. Mungo Park (1771-1806) eskoziarrak bere aldetik Niger ibaia aztertu zuen, buztinezko herrian geldialdia eginez, espedizio minean 1806an zendu aurretik.

Muturreko islamista barbaroen ahurretarik askatu da Tinbuktu. Meskita eta liburutegiez gain, zerbitzu publikoak, komunikazio-tresnak eta merkatuak suntsitu ziren. Frantses eta Maliko

armadek elkarrekin erasotzaileak haizatu zituzten. Jagoitik jende arrunten seguritatea nekez zaintzen dela jakiten da *Jeune Afrique* aldizkaria irakurtzean. Gizonek bizar derrigortuak moztu dituzte eta emazteak bela beltzik gabe jaisten dira Sankara plazara. Balafoia hauteman daiteke gau erdian. Bitxia da: nehoiz ez naiz Tinbuktun egon eta nire-nirea dela dirudit kasik Baiona edo Otsabide mitikoa bezain. Abderrahmane Sissako zinegile mauritaniarraren *Tinbaktu* (2014) filma ikustean *tinbaktuarra naiz ni ere* aldarrikatzeko gutizia piztu zitzaidan. Okupazio militar hurbilaren bidaldi bortitzak agertzen ziren pantailan, lapidazioak, bortxaketak, ezkontza behartuak, mutikoei baloiarekin aritzea debekatzen zitzairen eta musikariei koraren sokak kilimatzea. Tuaregek halaber berriz entzun ditzakete *Tinariwen* eta *Imahran Tinbaktu* taldeen *desert blues* ukigarriak.

Guztia literatura da: Moussa Konate (1951-2013) idazlearen polizia eleberriek Mali inarosten duten ikara politikoak bihikatzen dizkigute. Habibou komisarioak etnia ezberdinetan zuzentzen ditu hilketen argitzeak, eskualdeetako ohiturak, sinesteak eta jakitate animistak eskolan barneratu arrazionalismoarekin ezkonduz. *Meurtre à Tombouctou* bere azken nobelak ez zion ilusioei tokirik uzten, ideologia morbido eta libertiziden banderak beltz, jendalde osoak manipulatuak eta sakrifikatuak zirela azaltzen zelako hitzen atzean.

Tinbuktun datza azeriaren hatza.

GALERAREN SEINALEA

Bizirik ala hilik, beti, ukigarriak diren idazleak badira. Safo, Spinoza, Dostoievski edo Virginia Woolf ez ditugu ezagutu, ez behintzat Desportes, Houellebecq edo Darriusecq gure bideetan arraiki gurutzatu ditugun eran. Hiztegiak ez ditu biziak eta hilak bereizten, zenbait, indio onen pare, hobeago baino ez direla zendu ondoren. Pentsamendua harilkatzen nuela Baztango astoak, ardiak eta (g)izakiak amesten nituen Otsondon behera zetorren arrotzaren begi zuloetara so eta galdezka: ba al dago jenderik Baztan eta Zuberoatik kanpo?

Elurraren mehatxuak eratorrira kondenatu ninduen.

Kataluniako *Empuries* etxeak plazaratu du ez ohizko liburua *narrativa* sailean. Maria Merce Marçalek bizitzako hondar urtean harturiko apunteak eta René Vivienen biografia mamitu zuen Jean Paul Goujon Sevillako unibertsitateko frantses irakaslearekin eduki gutun-trukaketa luzea, agertzen dira biak MMM fundazioak sustaturiko obran. Bi urtez gaixo egonik, bularretako minbiziak eraman zuen olerkaria, 1998ko uztailaren 8an. Ivarsen hazi zen 1952an Bartzelonan sorturiko bigarren mailako irakasle zereginetan zinpurtu idazlea. Ama bakartasuna eta lesbianatasuna, hala erran badaiteke, aldarrikatzen zituen. Hain zuzen ere Heura alabak eta Fina Birules andraide ohiak dute argitalpena paratu. Pere Gimferrer jaunak –egiazkoak, ez Poloniako antzezleak- kometitu du hitzaurrea, neurtitzetan, poetarekiko elkarriketa bat aurkitzen dela eranskinetan, zeinetan poesiak noiztenka urakanaren ninikara bulkatzen ahal gaituela mailukatzen duen.

Aitortzekoa dut plazer gehiago ukan nuela Euskaltzaindiak eta Baztango Udalak berrargitaratu Mariano Izetaren *Dirua Galgarri* hostokatzen, Maria Merce Marçalen *El Senyal de la Perdua* irenstean baino. Konparatzekorik ez dute, bi idazleak hilak diren arren. alta MMM-en perpausek gatibatu ninduten ni ere, idazle zintzoarekin batera, heriora abian banintza bezala. Sentsazio bitxia da, beldurgarria nolabait: *gaur heriotzari josirik daramadan hirugarren eguna da* izkiriartzen zuen bizimina diagnostikatu zioten 1996ko uztaila bukaeran eta aitzina zioen: *ni, beste edozein emazteren moduan, bietarik bat omen nire ustez. Ezberdintasuna. Agian bularrik gabe iraun –amazonen antzera- gudari urguilutsua, herioari buru eginez oraino. La passio segons René Vivien* nobela, arrakastatsua suertatu zitzaion eta poesia *-Llengua abolida...-* pixka bat abandonatzea gogoetatzen zebilen eritasunak harrapatu zuenean.

Alabari eta maite zuen Finari azalpenak ematen segitzen dugu. Jean Paul Goujonekiko harremana ordea ez zukeen katalanez harilkatu, baizik eta frantsesez, eder eta sakonki

bazekielako Louise Labbéren eta Noailles bizkondesaren hizkuntza. Intimitate gutxi letra horietan, irakasle-ikasle lotura lantzen zuten, literatura ardatz, bakarretan pataskatzen zirela, poetari menturaz Goujon jauna gizonkoiegia zela, matxistegia alegia, zirudiolako. Alabaina, Frantzian generoa, *gender* ildoa erran nahi dut, ez da onartzen, gramatiketarik haste maskulinoak femeninoa gainditzen baitu. Egoerak sutan jartzen zuen Maria Merce Marçal.

Hatsanka igo nuen Amaiurko gazteluaren hondarretarainoko patarra. Ardi beltzek muturrak altxatu zituzten eta Nafarroako kate herdoilduak argazkitzean astoak zintzur-sudur marraka elkorra entzun arazi zidan. Bahaut! Bahaut! Haizeak balakatzen zuen kaskoan oroitu nintzen nola iritsi nintzen Maria Merce Marçalen olerkietara. Bartzelonako En Ravaleko liburutegian nengoen Helena Gonzalez galiziar adiskidearekin, ez jakin zein poesia liburu hauta etxerako autobusean ausatzeko. *Contraban de Llum* seinalatu zidan, oso ona da, gustatuko zaizu, guretarik da. *Yes*. Ulertu nuen berehala. Orduetik ez ninduen kitatu, euskaraz apaintzen nituen bere lanak, katalanez bizitzen eta hiltzen ikasten nuela nire aldian.

Badira etengabeko tristura hazten duten irakurketak. Tristura horrek hargatik poza harilkatzen du, idaztea, bizitzea bezala dela frogatzen duelako, aditzak azken hatseraino jazartzen baitira zorigaitzaren kilikatzerara.

Desprès, m'imagino, vindran tots els dols.

ARRALDE PRO DOMO

Hiru mila eta hiru ehun atal, hogeita eta bat sasoi, ehunka antzezle, zuzendari, muntatzaile, musika egile eta eszenario osatzaile parrastak, segundo bakoitzean hogeita lau irudi: kontuak egin eta ohartzen gara *Goenkale* kultuaren inguruko zenbakiek burtzoroa ematen dutela. Biderketak, gehiketak, ebaketak, berdinketak, matematiken baliabideak premiazkoak dira telesailak mugaren bi aldeetan eragin zuen zirraraz jabetzeko. Telebistazaleak erdi banatan bereiztea erdietsi zuen: sarrerako soinua aditu orduko gorrotoa nabaritzen zutenak eta besteak, besteak *fans* absolutuak. Datorren abenduan pantailaratuko da azken kapitulua. Euskal Herriko harri bitxi kuttunen multzoan ezarriko dugu *Goenkale* erraldoia. Nahikoa estimatzen eta eskertzen jakin ote dugu?

1994tik hona, kapitulu guztiak ez baina, ETBk ekoiztu telesaila irentsi dut nik neuk ere. Mauletik Baionara etortzen ginen oporretara, ahizparen etxean Jose Mari Lasa eta Maria Luisa Galardiren arteko patasken lekuko izateko. Beranduago, ordenagailuari esker, Arraldetar belaunaldi berrien biribilketa are latzagoak hurrupatzen genituen, bargoek gazura bezala, muinean galdera bakarra bermatzen zitzaigula: gaizkiaren eta gaiztakeriaren zurubian noraino joango dira? Aстетik aстера harritzen gintuen pertsonaien inozentziak eta duplizitate maltzurak. Arazo eta liskar, arrisku batetik askatu bezain laster hor zeukaten, ezkutu ederrean, leizea lizunki zabalik. Hondar holtza gairiditzekoa dute Arraldetik Amarrura doan xendraren ertzetan.

Telesailaren istorioan zehar uraren presentzia deigarria suertatu da. Itsaso nahasi, begi misterioitsuekiko arrain eta sakontasun abisaletan beherako erorketa itsuekiko mitologiek moldatu zuketzen gutariko frankoren imajinazioa. Portuak halaber azaltzen dira handizki: ezagutzen ditugu, badakigu zein karrika datorren pantailara, goiztirietan, arrastirietan, mendekari, abegikor, galernatsu, Bermeo, Getaria, Mutriku, Ondarroa, Getxo eta 21. sasoi honetan Elantxobe. Arraun elkartean eta Arraldeko bi tabernetan iskanbilari dabilta hiritarrak, aldizka tragiko eta komiko. Gorritxoak miresten ez dituelako ospearekiko herrian sinets ezina baldin bada ere, polizia-etxeak toki garrantzitsua dauka: bertako zeldetatik pasatzen dira Arraldeko kide gehienak behin edo berritan. Ezin uka: zortea dugu Oragarrekoak ala Bediakoak garelako!

Aurpegiak gogoan daramatzagu, dantzan: Don Luis, Agustin, Maite inudea, Eusebio eta Margari, Gaizka eta Xabier, Andoni eta Gema, Isaias eta Imanol, Koldo, Leonor, Sara, Kandido,

Kaxkurrio, Nekane, Alizia, Gaston, Pelos eta Txapas, Lutxi eta Xixto, Kepa eta Barbara, German, Mitxel, iparraldeko Manex, Itsaso, Tania, Malen, Abel, Ane, Mattin, Ibon, Esther, Mireia, Lukas... izenak eta izanak lerrokatzen ditugu eta oroitzapenak harrotzen dizkigute, garaian garaiko memoria finkatuz, idatzizko edozein oharrek baino ziurkiago. Begitarte horiek ospetsuak bihurtu diren aktoreenak dira. Ez ditut nire ikusle zorabiatu sekretuak lau haizeetara barreiatuko: mende laurden eskaseko ekinaren ondorioak alabaina argiak dira.

Eta Maria Luisa Galardi... *Baña! Baña! Baña! Zer da hau?*

Goenkale-k gure euskara maila, irainen alorlean bederen, aberastu zuen. Unibertsitateak tiradera ugaritako corpus bat osatu du saileko hiztegi, adiztegi, lexiko eta erran zahar entzutetsuak zaleen eskura uzteko: begira, gai serioak idoki daitezke Arraldeko egunerokotasunean errotuz. Euskaldunen arranguren eta pentsamenduen parte handia nazio-borrokak monopolizatzen zuen denboran, Arraldetarrek erakusten ziguten, gau eta aste oroz, Euskal Herri ezberdin bat posible zela, genero aldetik anitzagoa, gazteagoa, arruntagoa, oinarrizkoagoa, irudimenez haziriko mintzaira kementsuago batekikoa, kezka sozialak eta ekonomikoak asumitzen zituena. Ez hargatik baketsuagoa. Orain agian, Euskal Herria bera, pazifikatuagoa delarik, Arralde bilakatua da. Telesailari azkena datorkio ondikotz, funtzioa bete duelako *sugegorri tontolapiko zital* andanen gain-gainetik.

Maria Luisa Galardi loreekin eleka.

Hara... jakin zazue semea bi aldiz hil didazuela!

CAFE BAR NANSOUTY

Goiz hartan, egunak argitu gabe sartu nintzen trenean. Euri xehea ari zuen Akitaniako kostalde guztian. Burua burdinbide ordutegiz mukuru eduki eta, orain behingoz, geltokitik bi minututan nengoen. Nolabaiteko zortearen zortea. Sinagogaren aitzinetik pasatzean ohartu nintzen garaiegi zela soldadu zaindariak bertan zutik ikusteko. *Charlie Hebdo* astekari satirikoaren sarraskiaren ondoko asteetan jarri zituzten eta jendeek ausaz agurtzen dituzte.

Iragan urtarrila hasmentako Pariseko manifestaldi erraldoian nabarmen geratu zen gobernarien eta herritarren arteko leizea. Zuloaren itxura nagusi zen etorbide zabaletan. Hondorik ez zuen. Egoerak, hauteskundeen atarian beldurra hazten zuen, burtzoroa, bertigoa. Sinetsi ezina. Azkenean, hiru hamarkada hauetan gertatua gertatu da aurten ere Fronte Nazionalarekin: haroa handi, azantz eta laido asko eta emaitzak hutsaren hurrengoak. 2017an berdin agituko ote zaigun galdezka higatzen noa. Baina haria galtzen nabil, bista laburtzen doakit eta orratzaren katua franko tapatua suertatzen zait.

Eskuin muturreko ideologiaren tentazio pornografikoak gatibatzen duen jendarteko kideen azkorriko keinuak hurbiletik jarraitu nituen Bordeleko Nansouty auzoko izen bereko tabernako mahaitik. Tentazioak alabaina ez du beti bekatua egiazki eta materialki konplitzen dela erran nahi. Hor zeuden, hiritarrak eta zakurrak bilduak ostatuaren sabel hezean. Irrati komertzial baten sintoniak kontsumitzera akuilatzeke balioko lukeen tentsio ikaragarriaz hantzen zituen bazterrak. Manuek eta erretzaile amorratu eztul harpetsuek hausten zituzten berri-sailen eta solas-atrebituen leunak. Batek kafea hutsa eskatzen zuen, besteak esne negar batekin eta tauletarekin teman zebilenak ur baso batez lagundurik.

Hamalau graduko tenperatura iragartzen zuen eguraldi gizonak *Matrix* seriearen balizko laugarren atalaren trailer-ahots sakonez. Irri gutizia neukan. Soa loaz setiaturik zeukan *taxi driver* kulunkariak, konkortua, ile zuri uharteak kasko pelatuan, kruasanak erregutu zizkion etxeko andereari. Tabernatik lasterka atera zen, handik bost urratsetan zegoen okindegira ernatzeko. Anartean, irratian, behialako *Highway to hell* abestiaren notak bihikatzen zihoazen. Su-hiltzaileen kamioia pasatu zen sirenak ozen eta airean. Argitasun urdin batek urratu zuen Bordeleko zirrinta gris herabea.

Ez nintzen mahaitik kantitu. Barra atzetik emazteak xehea ekarri zidan: *votre monnaie madame...* bezero pare bat agurtu zuen. *Sud-Ouest* egunkariko lehen orrialdeari behakoa bota

nion: Akizera eta Mont-de-Marsanera luzatzeko AHT edo LGV proiektuari ezezkoa eman zion ez nekien zein erakundek, antza zenez funtsezko erabakia, zegoeneko, Estatuaren meneko zetzan. Berria irakurtzean errealitatearen bikoitzaz jabetu nintzen: nork ez zuen puntu batetik bestera ahalik agudoen joateko desiorik, garestiak diren AHT trenetan adibidez, TER tturturlarrietan apotu orde.

Baina derrigorrezko abiadura, lehia ekonomiko eta hetero-arau morbidoak bezala, agian astiro suntsitzen gaituen optika ilusioa baino ez zen. Kanpora presatu ziren zenbait, zigarretak erretzeko, etxeko anderea barne. Bizkarretik minez tolesten zihoan senarrak ordezkatu zuen berehala kafe-makinaren parean. Oroitu nintzen laino uherrek Landetako oihana, pinudiak eta elektrika zutoi gorakoiak troxatzen zituztela Pettiren kantak entzun nituela, Baztaneko *blues* zirraragarriak, Bruce Springsteeneko Nebraska *albumeko State Trooper* ezagunaren *remix* eguneratu bat eta maitasun galduz xifritu Björk handiosaren *Atom Dance* haluzinatua.

Kikara milikatu nuen mihiz, ertzetan tanta jaisten zitzaizkion kafe malkoak hurrupatzeko. Ez nuen ezer galtzekorik. Denbora banuen: Miquel Martí I Pol poetaren *Pensaments* liburua jalgi nuen zakutik Txinako hiru ibaien juntako txaboletan bildu zuhurtzia maisu baten batena bailitzan. Gogoeta hegan joan zitzaidan, ihesi, ahapez moldatzen nuen hitz bakoitza bozkarioz jantziz. Munduan nintzen, munduan izan gabe, estira eta atsegin:

La vida sempre té rao...

MUSIKAZ BLAI II

Soinu edo musikarik gabe, galduak gintezke. Hori zerabilkidan buru zokoan biribilketaz, igandean, autobide kasik hutsean etxera nentorrenean. Aditzen trinkoak ez zuen nire pentsamenduaren lasaiaz, nasaiaz, salbaiaz zalantzarik hazi behar. Bazuen aspaldi alabaina *behar* elea hiztegietatik ezabatu nuela: Argiñetan oren erdia hausnar arinean higituz geroztik iruditzen zitzaidan ez nuela gehiago, hain zuzen, deusezen premiarik, ezer, bapez. Hango apirilko berdetasun distiratsuak leundu zizkidan geratzen zitzaizkidan azken muga zabarrak. Haizearen zitzu isila, bele eta xoxoen arteko elkarrizketa amultsua, Elorriotik zetorren egunerokotasuna lehiakorraren motor zurrunga zurruna...

Badira gure herrian bakea dastatzeko eta erraiak bakez mukurutzeko balio duten leku paregabe franko. Zerrenda laburra datorkit muinaren kordelatzer: Hendaiako Loiako bahia, Ispasterreko Ogellak, Bardeetako ordokiak, Santa Graziko eliza, Amikuzeko oihaneko itzalak eta Baionako Aturri hegiko harrizko behatokiak... Gaztelugatxe eta orain Argiñeta. Tsvetan Todorov filosofoa *amodioaz* mintzatzen entzuteko inguru egokietan egokienak direla ezin uka. Hargatik Alhondigako –dagoeneko Azkuna Zentroa deitzen da...- berrogei eta hiru zutabeen artean ere gizonaren ahotsaren samurtasun sakonak oihartzun egiten zuen. Itsas bazterrik biluzienez bezala. Hitzen ozena, hatsa hartzearena, ihesi joan irri batena...

Voltaire minbera handiak izkiriatu zuen behin Ahuñamendien maldan dantza eta kanta itsuki maite zuten jendeak zirela euskaldunak. Ez zuen hutsik egin, luma bezain zorrotza zeukan bista, egiazko errealitateaz jabetu zelako. Agian, erdi-aroko eresia zahar handiosetatik Itoizen abesti gozo gazietaraino, airostasun horrek irauten lagundu gintuen. Hizkuntza desagertzeaz, lurra galtzeaz, etxeak erortzeaz, maitasunak hormatzeaz... zer bestela? Koplak sortu, zizelkatu, errabiaz edo etsipenez, ahaideak asmatu, zauritik distantzia landu eta aitzina, eta aitzina, eta *aurrera begira* plantatu beti ON taldekoek gomendatzen diguten legez.

Eta gitarra elektriko zirrista bat guztiaren troxatzeko. Adibidez, Kafe Antzokian, ez aspaldi, *moment of grace* batez gozatzen ari ginelako irudipena partekatu genuen Loraldiaren karietara: Joseba Irazokik *Lau Teilatu* deseraiakia eskaini zigun, Juan Carlos Perezen obrak bere baitan zekarren zakartasun doloretzu zama plazaren minean agerian utziz. Ikara, bizkar hezurrean behera. Begia heze neukan eta ez nintzen bakarra naski. Eskerrak *Espaloian* eta *Hutsa* taldekoek gure emozioak berriz bideratu zituztela, fideltasunak eta urratu litezkeen

xendrak gogora ekarriz. Mazarredon barna gero *hurrengo elurte arte* perpaus musikalak garunak inarosten zizkigun eta ez naiz ziur, Iggy Pop dela uste duen James Ellroy bera ezagutuko nuenik kalean gurutzatu izan banu, haren zaunka erlastuak salbu.

Ehun mila kanta baditugu papo hondoan kolpeka. Banba eta banba. Euria denean eta geltokian trenaren burdinazko errotek altzairua balakutzen dutenean ateratzen zaizkigu, hor dabilta idazten ari garenean, berdin lanean edo ausazko ibileren abiadurak azpimarratzen: *dron dron zazpi gizon dantz*an demagun Zumaiako Big Boy saldokoan mantra haluzinatua ala Iñaki Mendizabalen letrak apaintzen dituen Zornotzako INUN baten melodia sarkorrak, Jeff Buckley ber piztu bailitzaigun. Halaber Mallabiako Izaro Andres eta bere lagun trebeek Crosby Stills Nash and Youngen garaiak oroitarazten zizkiguten, ahotsez eta soinuaz, Larrabetzuko gaztetxeko taula gaina behin zapaltzen zutenean.

Musika bidaia da. Denborak eta lekuak biltzen dira hiru akordeen magia. Bozen zohardiek Amerikako belardi hedatuetara eraman gaitzakete, Nebraskan alderrai goazela Tom Joaden inguma gidari, eta handik Lakarri Buztanobiko ezkaratzean aurkitzen gara *ez dugu sinisten ez dugu sinesten* errepikatzen ahoak eman ahala, zintzurak larrutzeraino. Hemen daude denak, Wolfgang Amadeus eta Amaren Alabak, eta gu Argiñetan, eguzki izpia irentsi eta zoriontsu izaten saiatzen...

... edozein herriko jaixetan.

ZERGATIK ATHARRATZE

Urdiñarbeko Musikaren Egünaren ostean, garagardo basoak ahurrean, solasaldi zinez interesgarria irun nuen aspaldiko lagun batekin. Alozekoa bera. Basabürüko hiri nagusian langile. Erran niolarik Atharratzeko Piellenia hotel jendekinean hartu nuela bizpahiru gauentzat aterpe, zurbildu zitzaidan: ez dut konprenitzen nola etorri zaitezkeen Atharratzera oporretara, hemen deus ez dago, hiltzen eta kartetatik desagertzen doan herria da... ez nekien non gorde, hondarrean, euskalduna izanagatik –ez naiz ausartuko abertzale hitza erabiltzera...- oinarrizko turista begi-luze merkearen antzera harrapatu banindu legez! Une hartan, ez nenbilen nire buruaz sobera harro...

Aserik eta beterik itzuli nintzen Urdiñarbetik, zeru apaleko lainoak lantzer urtzen zirela Mendikotako ordokia aintzira engainagarria bihurtuz. Argitasun urria zetorren Ahüzkin behera eta herrialde distiratsu ohi batek jasan zezakeen utzitasunaren mehatxua nabaritu nuen zainetan. Ühaitzaren hegian gelditu nintzen, Ozazeko norabidean. Erreka, zilar isurtzen zen Maulerantz, burrunbaz, ohantzeko harri borobilak bata bestearen aurka bulkatuz. Ukitua nintzen, izpiritua nahas neukan, Maria Luisa Galardiren kalbarioa, mende heroikoetan lasterrez higatu Marisantzen destinoari uztartu nion eta erantzunik aurkitu gabe galdezka aritu nintzen: zergatik Atharratze, baina zergatik Atharratze?

Etzan nintzen Spinozaren Etikaren laugarren parte irakurtzea xede. Menderakuntza humanoaz edo sentimenduen indarrez ari zitzaidan eliza eta bilkura-leku guztietatik baztertu Amsterdameko jakintsu gogaitua. Proposamenak. Frogak. Eskolioak. Spinozak, luma zehatzez aipatzen zituen kontzeptuak nireganatzen nituen astiro, eztizko edariak bailiran, onak eta oneziak barneak gozatzen zaizkidala. Loak eraman ninduen. Zalhagain eta Bosmendieta inguruetan itxeskatu nintzen, hatsanka, Larraineko gatutzesaren hatzak bilatzen eta batere epikotasunik ez zuten ametsak harilkatzen. Ez nintzen, alaina, poeta klandestino, bere lurtean zegoela uste zuen arrotz ehizatua baino. Spinozari esker, argi nuen zer eta nor nintzen.

Biharamunean, iratzarri nintzenean Peillenia hoteleko bigarren gelan, Alozeko adiskideari emateko eta Atharratzen kabitzeko lau arrazoiekiko zerrenda zebilkidan kasko zokoan bralea dantzan. Hasteko eta **bat**, Euskal Herrian den tokirik egokiena da Spinozaren hitzez mozkortzeko. Sozialik nahikoa garesti ordainduriko isiltasunaren sakonak oihartzun bereziaz apaintzen ditu Etikaren perpausak. Leioa ireki orduko Ühaitza salbaiaren azantz elkorrak sartzen dira ganbaran. Oroitu nintzen hamarkada parean lehenago Teodoro Monot

ikerlariak Sahara desertuaz osatu lana irentsi nuela, hor, Atharratzeko pilota plazan, eki-sargian. Gero, **bi**, Atharratzen bezala Basabürüa osoan, üdako sasotik kanpo deus ez dagoenez, kontsumitzeko tentazioetatik urrun hots, pentsamendua ez du ezerk mugatzen eta pentsatzea da eginbide bakarra. Lohiz emokatu xendretatik oinez jo, hausnartu eta ondorioak atera. Eskolioak garatuz. Are gehiago, **hiru**, ikusiz jendeak, ez soilik adin handikoak, zelan bizi diren hemen, iraupen irakaspenak erdiesten dira Basabürüan, Elsa Ollarj-Inesen *Dans leur jeunesse il y a du passé* izeneko filmeko gazteen baitan metaturiko iragana lekuko. Iharduki, irria, gasna, ogia, kanta eta izerdia kopetan isurtzen den ber... Eta azkenik, **lau**, gosaltzera jaistean irudikatua, benetan gertatzen delako Atharratzen, astelehenetako merkatuaren aitzakian: Pieilleniako ostatuko mahaian dago, arrautza eta xingar askaltzen, belusezko boza duen Junes Xuburu erraldoia. Agurrak eta ezagutzak berehalakoak dira. Ametsaren eta egiaren artean leizerik ez bailitzan eta denboraren markagailuak oro geldoan izoztu balira bezala.

Spinozaren XVIII. proposamenak dioenez, desioa da bizidunaren esentzia, bere izaeran tematzeraz bultzatzen duena, poztasunetik sortzen dena anitzez eraginkorragoa dela tristurak hazitakoa baino. Zorionaren oinarrian, izatea, ekitea eta bizitzea daudela garbi daukat Atharratzen.

Horregatik ba...

DIDAZ DIDAM

Apirila erditsutan ireki zen Baionako DIDAM deitu sorkuntza garaikidearen aterpe berria Sistiagaren margoekin. Ezkandraikoen kemenez egitarautu Etiopikoen kariatara izan zen. Santizpiritu auzoan kokatu itsas aferen kudeaketa ziurtatzen zuen administrazioak abandonatu egoitza, agudo eta doi konpondu zen, behialako Carré Bonnat-en ixtea balantzatzeko.

Kultura eta Kirola festibalaren aitzakian Raymond Depardon argazkilariak joko olinpiko ezberdinetan hartu potretak dilindatu ziren DIDAMeko hormetan: Mark Spitz, Nadia Commanecchi, Lasse Viren eta Valeri Borzov... Black Panthers-en kide ziren txapeldunen esku mutur altxatuak Mexikoko podiumetan. Bai eta Municheko sarraskia. Zuri-beltzezko artelanek ez gintuzten gaztetzen.

Auzapezaren, axuantaren eta Vincent Maraval eragilearen mintzaldiek ekitaldia abiatu zuten, atzean zeuzkatela pantailetan distiraz zebiltzan Teddy Rinner, Boris Diaw eta beste milioi-zaku harroak. Emazte gutxi goi-mailako kirolean... aurtengo Baionako Besten afixa kitxean bezala: xahakoak, tripa-handiak, mozkorrak, begi ezkelak, frantses banderaren hiru koloreak, denak azaltzen dira, salbu emazteak. Gauza jakina da, bestak ez dira emaxtekiekientzat edo/eta gay xoxoloentzat.

Hondar asteotan, Kultura eta Kirola festibalaren *flop* ikusgarriaren ondotik Aturriko urak, Baionako herriko etxeok baino zoharragoak direla aitortu genezake. Galderak hegaldak dabilta, demokrazia guztietan legez: diru publikoaren kopuruaz eta erabileraz, zer? Ekitaldiaren edukiaz, zer? Nondik norakoaz, zer? *Quid* orain arteko eta jada egingo ez diren festibalez? Herioaren ordua hurbildu zitzairen *Translatines* delakoei, *Ruée au Jazz* eta *Maimorables* entzutetsuei. *Black and Basque* jaialdia aldiz perfusioarekin datza, hedailo.

Depardonaren estreinaldi egunean, diskurtsoak bihikatu aurretik, ezagutzen dudana hemengo Poutinezalea jarraitu nuen *Baiona Maite zaitut* lema ardatz bildu hiritarrek banatu fanzinea, *flyers* ofizialetatik kentzen. Ardoa eskuan, beranduago, zinkurinaz ari zen bera ere, dirua luzatzen zitzaiola burrustan Kultura eta Kirola jaialdiari Bonnat museoaren irekitzeko sosik ez zegoen artean. Izerdia usnatzen zen, giharren berotzeko gantzugailu eta eguzki krema karioekin dantzan. Baionako *happy few* gehienak han ziren/geunden (*rayez les mentions inutiles*) aurkarien seinale baten aiduru: elektrika joan zen oren laurden batez eta auzoak

xuxurlatu zidan errudunak *anonymous* ospetsuak zirela! Gustatzen zaigu lanjeroski bizarda.
Alaina...

Bi urte hauetan Lapurdumeko kultura larre-motza, ibilera bortxazko ugaldizatzeko oldearen meneko dago eta horrek ez du ezer onik hitz ematen: Ugalde axuantak, plantakoa eta gisakoa bestalde, sinesten du, errepikatzen duela buklean, kultura, ekonomiaren ezpata zorrotza dela, hiriarri txintxina eta Lesseps kaiko bederatzi ehun metroak urbanizatzeko bultzada ekarriko diola. Jaun horrentzat mundua zartatu zenetik biribildu kultura aktarik erraldoiena 1932an gertatu zen, Baionako Bestak lehen aldiz ireki zirenean. Bost axola Victor Hugo edo Roland Barthes noizbait hemen egon zirela jakitea.

Funtsean, kontsumitu behar da, itsuki, falangaz, kirola, xingarra, txokolatea, zirkua, herritarren diruaz Hollande presidentearen emaztegaiari joan-etorri lasterra eskainiz edo Levalloisko dojoak 8300 euro hilabetearen ordaintzen duen Teddy Rinner Baionara tirriaraziz. Eskandala bat, Paris aldeko taldea gorrian dagoelarik finantzen aldetik. Ezen kultura, jende horientzat, ez da sekula euskarazko, okzitanozko, gaztelarazko, arabarrezko edo sefardien hizkuntzaz ekoiztu ekimen lokala. Hori da Baiona hargatik, kostaldeko edozein hiri baino anitzagoa, bihurriagoa, sentiberagoa, alaiagoa, kezkatagoa, bere zoritxarrerako, herrikoiegia...

Bi udaberri eskas boterera hupatu udaletxeko gizon-emazteek Kultura eta Kirola festibalaren estakurua baliatu zuten, agian, hauteskunde kanpaina denboran, beraien alde, hortzez eta haginez, zutitu baionarren sariztatzeko. Porrotak, Leon erregea biluzik utzi zuen.

Eskerrak JR-ek ezezkoaz erantzun ziola BO eta AB taldeen fusioari.

Labeak bero darrai...

REMEMBER ANNA K.

Moskuko geltokian Wronsky printzearen eta Karenina estatuko gizon puxantaren andrearen arteko begirada sakonak, omena eta fama salbu, artean elkar ezezagutzen zirela, literatura aldatuko zuen errotik. Melodrama perfektuak, Happy end-ik gabe, luzerako zizelkatuko zituen izpirituak, Hollywoodeko zinema industriari oparotasuna ziurtatuz. Gustave Flaubert handiaren Emma Bovary baino ausartagoa zen Anna K., eslaviar arima zeukalako, Petersburgo eta Moskuko distiren lurrinetan bururaino joateko, hazia eta hezia.

Leon Tolstoi ohitua zen hatsa eta eraman erraldoiko eleberriak plazaratzen. *Gerra eta Bakea* nobelak adibidez, Errusiako estepa hotzetan Napoleon frantses enperadore konkistatzailearen falanga gosetua nola tratatua suertatu zen kontatzen zuen, Berezina ibai ankerrean herritarrek jolastu fantasia heroikoa ahuspatuz. Anna Karenina obran bederatzi ehun orrialde behar izan zituen amodiozko istorio minbera eta ukigarriaren orrazteko. Hemen ere gertaera intimo indibidualak nahasten zituen Errusiaren destinoaren gorabeherarekiko zantzuekin: 1908ko lehen iraultza bezperan gaude, esklaboak askatuak izan dira, laborari eta langile soil bilakaturik, Europako eztabaida politiko eta ekonomikoez jakitun direla lur eta kargu jabeak. Nobelan zehar agertzen dira eztabaidak, aitzinamenduaren aldekoak, kontrakoak, armadaren lekua, elizarena, moralak duen garrantzia...

Azken asteotan treneko bidaia asko neuzkan iragarriak. Liburu mardula bilatzen nuen, hosto andanak denbora pasatzen lagunduko ninduelakoan. Errusiar literatura gustatu zait betidanik, eleberriak, poesiak, lekukotasunak... Fiodor Dostoievskiren konpainiaz gozatu nuen, urtea baino gehiagoz, bere idazle egutegiarekin bukatuz, tristura bat bihotzean, irakurle-pasionatu ibilaldia akabatzen zitzaidalako hain zuen. Uda honetan, Anton Txekhovekin batera ausatu nintzen kartzela-kolonia moduan antolatu Sakhalineko uhartean, goiti eta beheiti, ezker eta eskuin, noizbait –jada egina ez baldin bazen...- euskaratuko nukeen *Kaia Txoria* antzerkia eskaintzeko, balizko *casting* batean, zein antzezle aukeratuko nituen irudikatuz: Patxo Telleria, Itziar Ituño, Mikel Martinez, Loreto Mauleon eta Martxelo Rubio...

Ez nekien zein obra hautatu. Michel Onfray filosofo frantsesari egin zitzaion Prousten galdeketak argi zirrista bat piztu zidan. Bertan aitortzen zuen, bere emazte zenak bai, baina berak ez zuela nehoiz ukan Anna Karenina leitzeko kuraiarik. Denbora eskasez. Tirria faltaz. Karta bat neukan ahurrean, pista bat irekitzen zitzaidan. Arras konbentzitu ninduen Goenkale

17 sasoiko atal batean German Madariagak, urtebetetzerako, Ines bere erizain partikularrari Anna Karenina nobela oparitu ziola ikusteak. Ondoko minutuan, Baionako Espainia karrikako *Alinea* liburu dendako norabidean nengoen, zanpa-zanpa, esperantzaz hegaldia.

Eta geroztik, ez diot, liburua ireki eta Hendaia-Donostia arteko Euskotren batean erabili txartelak markatu orrialdera hupatzeko plazerari uko egiten. Zorion hutsa da. Anna Kareninaren izaera distiratsua, amultsua, tragikoa, infernurainoko erorketan jarraitzen dut geldialdiz geldi aldi: bost axola zait Toulouse-Matabiaura iristean bi orduz oraino *Intercité* honetan malgortzekoa baldin banaiz, alderantziz, nahiko nuke denbora horma dadin, irakurle bakartasun bekaitzak menderen mendeetan iraun dakidan. Eta ohartzen naiz, bera ere lurjabea zelako agian, Tolstoiek xeheki agertzen duen jendarte errusiarraren ereduak usteltzen doazela, maisu eta mutilen arteko harremanak uhertzen, aristokraziaren boterearen higatzea... baliteke gainera nobelako beste pertsonaia ardatza den Kostia Levine baserritarra bere itxurara sortu izana, kezka eta xede berdinekin.

Trenak ekarri, trenak eroan Anna Kareninak eta Wronsky printzeak dastatu amodio ozpeñan oinarritzen da eleberriaren unibertsaltasuna, guztiz gehienek, erraiak literalki behin erre dizkigun antzeko sentimenduak uste ez genituen lekuetara bulkatu gaituelako: *zorion guztiak antzekoak dira, baina zoritxar bakoitzak bere traka berezia dauka...*

ALOS GARDEN

Egia handia ebidentzia gisa altxatzen zitzaigun, urriaren 10ean, Baionako Lauga gelan geundela, bildu-bilduak Oskorri taldearen despedidaz gozatzeko eta hainbat *standing ovation* herrokatuz berrogeita bost urtez eltze guztietako zali izan diren soinulariak eskertzeko: Euskaldunon herriak, menderen mendeetan zehar, iraun baldin badu musikari, kantari, bertsoari esker izan da. Ez da misteriorik, melodia eta hitza iruteko nahikunde zohar eta intimoarena salbu. Barkatu errepikatzen banaiz: Antxon Latxak hasi *Gaztelugatxe* jarraitzen zuen Natxo de Felipek lur altzo honetako jendeen bizi-filosofia laburtuz: *inoren zapaltzeko gogoa, zapalduak ez izatekoa, hau da gure urguilua altxor guztien iturria...* atsegin hutsa zen, zoriona, handien, txikien, adinekoen, hizkuntza ezagutu gabe abestiak maite zituztenen begitarteetan hedatzen ikustea.

Lau hamarkadako elkarrekiko bidaia bat bukatzen zitzaigun Baionan. Trenetik jaisteko unea iragarri ziguten Oskorrikoek. Ikus-entzuleak oldeka altxatzen ziren, beste bat galdatzeko eta taldeak hiru gehiago ematen zituen kemen, indar eta bozkario uki-ezina ezpainetan, behin, berritan... nehor ez zen aspertzen, haurrak eta gazteak fandangoa fura-furatzerara lehiatzen ziren kiroldegiaren bazter batera, mutiko eta neska pare bat tauladaren maldan zegoela zoratua artistei beha. Ziur nago, gau hartan Baionan, eta Maulen, Gasteizen, Donostian, Iruñean eta Bilbon aurkituko direnek Oskorri non, noiz, norekin hauteman zuten gogoratzen saiatu zirela. Ondorioak beti handiosak dira. Xanpaina txistu bat bederen merezi dute.

Mila esker Oskorri. Eskerrik asko Goenkale.

Baina bizitza aitzina doa. Arren Iker Goenaga jo ezak trikitia! Emak hor Bixente Martinez! Ez gaituzue aseak, alderantziz: alde horretatik ez dugu bakerik nahi, gitarra zirristak eta atabal kolpe elkorak baino, bihotzak urratzeraino. Winston Smithek, aukera ukan balu, Kantauriko lehorretan errotzea desioko zuen. Halaber, nire adiskide Svletana Alexeievitch bihotz berak, Bielorrusia eta Ukrainako muga zitalak utziko balitu. Xabier Zeberio, Francisco Herrero, Lorena Nuñez eta Pello Ramirezek osatu Alos Quartet saldoaren musikak hozka gainditzen laguntzen gaitu: gainean daukagun negu ederraren soinu banda osatzen du jadanik, Ken Zazpiren lan berriaren aiduru gaudela...

Tristura, hargatik, hazi da hitzaren hegietan: Chantal Akerman zinegileak utzi gintuen, kameraren itzala jarraitzen genuela Hotel Montereyko pasabide ilunetan barna. Heriotza

bertan zetzan, zelatari. Belgikarraren obrak mendeak markatu zituen bereziki Marcel Prousten *La Prisonnière* nobelaren egokitzapen distiratsua eskainiz *La Captive* izenburuarekin. Halaber, Suediako Ystad hirian, Kurt Wallander umezurtz bihurtu zen Henning Mankell zendu zelarik. Eritasun luze baten ondorioz, erraten den bezala. Erein argitaletxean euskaraz irakurri daiteke sailari hasiera eman zion *Aurpegiak gabeko hiltzaileak* eta ARTE katean Kenneth Branagh ipar irlandar antzezlearekiko Wallander serieko atalak ikusgai daude.

Milesker Chantal. Eskerrik asko Henning.

Oskorriren despedida berotik landa, berehala piztu zen Oskorriren kantuenganako nostalgia. Batzuk Arestiren oroimenezko obra berrentzun zuten, Bartzelonako ikasle mutilei zuzendu *maldizioak* hotz ikara eragin ziela bizkar hezurrean behera, besteek *Desertore* albumaz sakonago gozatuz zebiltzan eta gainerakoak, ostiral arrastiri batez Baiona Ttipiko Xina tabernan juntatu ziren Nat eta Pat soinulariekin batera, abestiak ahoak eman ahala aireratzeko. Alegrentziarik beteenean. Aspaldiko ezagunak zeuden, elkarri besotik heldu eta garagardo basoak ahurretan. Ezpainetan zeuzkaten irriek iraupenaren eta berrogeita hamar urteko berunezko txapa lehertzailearen azpitik bizirik ateratzearen atsegina erakusten zuten.

We Are belarrian, Zazie pantailan, Chantal Akermanen hitzek norabidea azpatzen digute: *iraungo dut, baizik eta idazten baldin badut. Eta funtsean, han edo hemen, zer axola. Nire bizitza, bizitzarik ez dut. Ez dut jakin baten egiten.*

Garden gardenak.

MUNDUAN BAKARRIK

Badira zutabeak axola gabeziarik lotsagarrienean hasten eta odolak bustiriko paperean tragediak etzanez bururatzen direnak. Itzulerarik ez duen puntu horren korapiloan garatzen da literatura izendatu nahiko genukeen zera hori. Nehork ez du ukatuko. Larunbat arratsaldeetako jendetzearik urrun irudikatzen ditugu gure urratsak. Baina hirian bizi gara, karririk berdinak dira denentzat eta ez dukegu denbora askorik Ikea bezalako ez-leku komertzial hutsetan pasatzeko –bereziki sosez zuhur gabiltzanean. Eta behar bada, neurri batetik hara, ez dugu ama-ontzien antzera moldaturiko toki horietan, merkearen merkeaz eskaintzen zaizkigun gailu, arnes eta girgil distiratsuen beharrik. Garapen ezaren hiztegi entziklopedikoa eskuratu berri dutenen artean kausitzen naiz ni neu ere andregaiak zorriak zartatzen bakarrik utzi ninduenetik. Edo porruak landatzen. Edo antzarak ferratzen. Edo *La Décroissance* hilabetekaria, kaskoa karrakatuz, irakurtzen.

Lean eta *kaizen* kudeaketa moduaren ondorioak pairatzen hasiak gara jadanik, gastuen murrizketa drastikoak eta talde gero handiagoen osaketak, behere mailak arras urtuak, itoak, urkatuak suertatuz, bai lanaren alorrean eta bai politika mailan Frantzia super-eskualdeak eraikitzearekin. Laster batean, George Orwellen edo Aldous Huxleyren nobeletan bezala, lur azala botere politiko bakarrak gobernatuko du, bortitz eta zakar. Hizkuntza minimalista batekin, historiarik ez, geografiarik apenas, falanga eta terrore kontsumistaz aparte sentimenduak debekatuak diratekeelarik. COP 21 izeneko gailurraren hurbiltasunak, aurrekari erraldoien itzalean, distopiak asmatzera akuilatzen gaitu: Kasandra sakrifikatuak izateko sortu gintuzten.

Antizipazio eleberriak maite ditut betidanik. *Matrix* eta *eXistenZ* filma zoragarrien zalea naizela badaki irakurleak, nahiz eta xehetasunak interes handirik ez duen bake prozesuaren geldikeria salatzea hobesten duen euskaldunon sozietatean. Lehentasunak badira, eta horietan noski, ez da aurkitzen Riddle Scotten *Alone on Mars* obraren ikustera joatea, hain zuzen *Deiadar* manifestaldia iragarria delarik Lapurdiko hiri nagusian. Zinematik jalgitzean eta ezagunak gurutzatzean egiazki bakarrik gara Baionan. Batzuetan barka ezintasunak eramaten gaitu eta menturaz Matt Damon ez zen gu bezain arrotza sentitzen planeta gorri lanjerosean.

Espezialistek erranen dute ez dela Riddle Scotten lanik distiratsuen. Arrazoiekin, *Blade Runner* edo *Thelma eta Louise* gogoan atxikitzen baldin badira. Oinarrizko blok buster bat da, efektu bereziz mukuru, soinu-banda ozenarekin, 3D betaurrekoekin begiratzekoa. Sei

astronauta amerikar Marten dabilta eta galerna sideral baten karietara izarbela abandonatzera bortxatuak dira, Matt Damon gaizoa gabe. Bi orduz, gizona, baldintza latzetan bizirauten saiatzen segitzen da, lurrera datozen beste bost kideen erruduntasun zantzuen hantzearekin batera. Halaber, gerra filma bat dela erantsi genezake, Ipar Amerika hain bakarrik *versus* mundu osoa, denak beraren aurka ligatuak. Borreroak bere jarrera biktimizatzea lortzen du eta zinean bilduek amerikarren salbatzea txalotzen dute bukaeran. Ohikoa da kantua...

Matt Damon, botanista abilak erdietsi zuen lur sagarrak ekoiztea Marteko errautsean, astronautek bertan ehortzi gorotz poltsak birziklatuz. Ikusgarria. Horrela iraun zuen. Baratza egitera zihoala, ongi baliatuko zitzaion Argia astekariko Jagoba Errekondoren liburu arrakastatsua. Pantailan noiz agertuko zitzaidan aiduru nengoen. Eta gero, Madisoneko bidean eratorrian galduriko Clint Eastwoodek bipildu azenarioak erantsiz, Meryl Streepen zuzendaritzapean, hiruak salda zapoetsuak egiten irudituko nituen. Orduan nuen Pariseko sarraskiaren berria ikasi. Seko gelditu nintzen zozokeriak idaztetik: grabetasun latzaren berunak neuronak haserrez eta tristuraz hantu zizkidan. Herioa barreiatzen zuten zirtzil horiei ez nien barkatuko.

Matt Damon eta asto beltxarenak bakarrik abandonatu nituen Marten, amerikarren zabor meta erraldoiaren maldan, hausnarrean eta laguntza eske. Haserre eta triste beratz darrait, Pariseko Bataclan kontzertu lekuan ehun eta hogeita hamar erailen izenean.

FRINTZ IKARAK

Euria ari du. Etengabe. Panterak jauzi egin zuen geltokiaren gainetik. Soak abere antropomorfitikoen argana luzatu ziren, miresmeneko oihuen harramantzak oihartzun. Gizonetan ausartenak pistola armatu eta lau bala tiratu zituen airera. Oldeak ez ziren fida. Elurteak iragartzen zituzten anartean eta jakintzaren zidor malkarretan barna behaztopatzen ziren zuhurretik gutxi zuketan bizi-zomorroak. Izurrite uhina hurbiltzen ari zen. Kafkak Darth Vadoren konpainia bilatzen zuen gazteluaren har-mailetan jarririk. Labana zen malenkoniaren horma eta trenaren zaratak ez zuen giroa sosegatu.

Gor mutuek letrak ezabatzen zitzaizkien liburu apokaliptikoak hostokatzen zituzten arrats apaletan. Dendara ernatzen ziren saldoan Paola Letalbergen *Joy Stick* azken nobela eskatzeko Anselm Kiefern berunezko hizkiz moldatua zelako. Ahotik ahora aipatzen zen lau ehun eta hirurogeita zazpi plametan bihotza iradokitzen zaion planetaren bilakaera bihikatzen du ironia eta samurtasun anker artean. Nortasun finkorik ez daukan pertsonaiak negar perlen buztinetan pausatzen ditu nabaritzen duen tristura eta ezintasuna: debalde izan ote dira mende eta hamarkada astunetako langintzak? Aberea bezala munduaz desjabetua balitz? Urakanak itoko duen itsas mineko uharte mehatxatu bat? Galderak, gure partez, lerrokatzen ditu idazleak.

Egia da gerra elkorrak erretzen duela lurra. Zozo hutsa izan behar da bakeaz eta biolentzia ezaz amets egiteko. Besterik ez du berresten Paola Letalberg handiak plazaratu duen obra distiratsuan. Panterak, lehoiak, tigreak eta bularralde oparoko emakume larderiatsuak sartzen ditu Dow Jones puntuak kalkulatzeko diren burtsetako zirkuluetan eta ondorioa sinetsi ezina da: jendeak uste du abereak baino gehiago dela baina ez da aparantziarik ere hala. Alderantziz. Atsegin sadikoaz gozatzea xerkatzen du orroaz eta atzamarka. Bere gabeziek eragin zepoetara erortzen da, aurrean duen lehen untxi inuzentearen antzera. Soilik Aliziak daki izaera salbatuaren giltza Urtsua jauretzea zaintzen duen zakur beldurgarriaren hortz artean dagoela.

Paola Letalbergen *Joy Stick* eleberri mardula ez da euskarara itzulita. Menturaz ez da nehoiz itzuliko, zehaztea zaila den hizkuntza batean idatzia delako. Betirako *ez aski* eta egundainokoan *sobera* datoz desagertzearen diren mintzaira zimel hauek. Ele-aniztasuna bekatua denez, barkagaitza, mespretxurik larriena merezi dute. Letalbergekin gaur Babel dorrea eraikitzea xede du, urratsez urrats, behialako elkortasunaren kakofonia amniotikoa sustatzearen. Musika bakarreko sintoniaz aspertua da Bozateko kultur parke zabalean zutik, Xabier Santxotenenak zizelaz irudikaturiko *oprimido inconsciente* deituriko obra konkorra.

Zainak jabaltzeko Star Wars-en zazpigarren atalaren ikusten izan nintzen. Hiria zeharkatu nuen oinez. *Aizinantetarik* nintzen famaz. Abiadura subliminikoak, 3 D-ko tramankuluak, R2-D2, BB-8 eta C-3PO droida estoikoak, aspaldiko heroia ezagun bezain jada zahartuak, Pascal filosofoa bera izuz taratailatuko luketen muga gabeko espazio hutsen sakonak gustatu zitzaizkidan pantaila betean. Jendearen imajinario ahalmenaren hedadurak harriturik utzi ninduen brika eta brokaz osatu hainbeste hegazkin, bizidun, robot eta pizti lehertzen, zartatzen, gaiztotzen, baketzen, hantzen eta hertzen jarraitzearekin: zoratzekoa bazen... Semeak aita hil zuen eta Han Soloren dolua eramatea erabaki nuen, mantalet eta kapetan...

Chewbacca txinpantzea bezain etsia nintzen alabaina etxeratzean. Angeluko *Begiz Begi* post-trad-rock taldearen *Joan Ihes Egin Baino Lehen* diskoa jarri nuen eta Paola Letalbergen liburua ireki madarikatzeen kapituluan: musikaren beltza ederki ezkontzen zen idazlearen kalipu imperfektuarekin, ez zen horretan geldituko, aitzina behar zuen, indarraren malda ilunenetik baldin bazen ere: *behatz makurrak bilduko direnean zu eta ni bakun lehegarrian, lurraren erraiak zartatuko dira eta odolez gose Basajaun transformista agertuko zaizu Aritzakuneko xendraren erdian...*

Irlandan dago Luke Skywalker, zorionez.

TXANKLETA HONDARTZAN

Neguko igande lainotsu batez, euskal literaturak kokagune gisa hain maite duen Vieux Boucauko aintziraren inguruan nenbilen hausnarrean. Honetaz eta hartaz. Baldeaz eta debaldeaz. Muntaz eta desmuntaz. Arrangura dorpeek lehertzen ninduten Paola Letalbergen *Joy Stick* liburu lodikotean itotzen hasi nintzenez geroztik. Une hartan nerauk nekusan Landetako hondartzara uhinek bulkatu txankleta bakun berdina aipatzen zuen, luze eta zabal. Literaturaren eta errealtatearen parekotasunak erabat txunditzen ninduen. Poztu ere nintzen nolabait, sosegatu, baketu. Ez nion ordea nire barne-balioari etekin baikorrik iradoki. Hori, zegoeneko, zaila zitekeen.

Europako bost izar horailez takatu aztal azpia eta behatz artean ile gozoz azpatu lotailua zeukan urdin koloreko txankletak. Idazlearen duda pairatu nuen: surfari batek ezkerreko korrontetik jazarri ur oldean erantzi oinetakoa zen ala Senegaleko lehorretik, eman dezagun, fortunazko ontzi amilduren batean sartu kide txiro baina ausart batena? Senegal nioen, marmar, Atlantikoko uholdeak itsasoak irentsiak oro Bizkaiko Golkora bultzatzen zituelako. Duela gutxi, Bilbora desbideratu aurretik, aski zen ikustea zein nolako eratorria marraztu zuen Panamar bandera peko *Modern Express* zamaketari astunak.

Txankletari begira geratu nintzaion. Alferkeria hutsez naski. Kuzkurtu nintzen, belaunikatu hots, ipar okituaren eta hego pikarrituaren harremanaren ikurra zirudien zapatatxoaren parean. Jon Arretxeren Mamadou Touré detektibe-sendatzaileari deitzekotan egon nintzen: hark deseginen zituen bizitzak, errealtateak eta uste komunak txirikordaturiko korapiloak. Agudo. Bi grigria, lau otoitz beltz eta Ali Farkaren gitarra nota zilar andana bat, Niafunktetik zuzenean. Txankleta ihesi joan zitzaion emakumea edo gizona irudikatzen hasi nintzen eta nonbait nabaritu nuen pertsona hura jadanik gurutzatua nuela Santizpirituko karriketan. Gurutzatua eta solastatua bistan dena.

Ezagutzen ez ditudan lekuez ari naiz. Bara-bara. Nazioarteko turismo gida-liburua osatzen ari banintza bezala. Badakit barka ezina naizela. Txankletaren umiltasunak hargatik urtu ninduen, erabat ezabatu eta bat batean Etiopiako lur-urrakoan doi-doia bermatzen zihoan Luzia australopitekoa nintzen, sumendien mehatxupearan belarrez eta txori haragiz aserik bizirauten saiatzen zena. Permiar aroko zazpigarren suntsiketa boladak ekarri zuen hormatze garaiak Isturitzeko harpeetan kausitu ninduen, neandertal ameslari trakets eta gaurko klima

aldaketaren atarian egiaren eta egiantzaren urmelean igerika nabil, (beraien) egiaren lehentasuna aldarrikatzen dutenen harkaitzetan haustear. Betidaniko emigranteak gara. Egundainokoak. Lesbosko plaia hertsian zenduriko Aylan Kurdi gaizoaren sendi globalekoak. Jendetasunaren geneetan datza altxatu eta ibiltzea bezain mugimendua egitean txankleta, bizitzarekin batera, galtzea.

Etzetik lan-bila sekula abiatu ez denak bota biezagu harria...

Dagoeneko miresten dudan Paola Letalbergekek, bere buruaz beste egin zuen Stefan Zweig austriarraren ildotik idazten du izkiriataileak noizbait, behar diola fikzioan murgiltzeari uko egin, errealitatearekin tematzeko, adarkatzeko, zitzikatua hondoratzeko: utzi ditzala patetikoak baino ez diren Lantainako alabaren auhenak eta CAC40 indizea hantzen doazen aberats-ondoei edo iparraldeko Herrien Arteko Lankidetzaren Erakunde Publikoa, berantetsia, sakrifizio galantak eginez, martxan jartzen dabiltzan *happy few* apurrei interesatu dadila. Aipatu ditzala halaber, nahi baldin badu, Baztango bihotzeko Lekarozko bazter batean eraikitzea xede den, Nafarroako Gobernuak baiezkota emana dio gainera, urbanizatze, hotel eta golf zelaiaren Aroztegia proiektuaren nondik norakoak...

Errealitatearen seduzitze indarra salatzen dute oharrez ohar, beraien egia sutuki defendatzea hobesten duten pentsa maisu morbidoek. Zer da txankleta abandonatu baten balizko tragediaren funtsa Vieux Boucauko hondartza desertatuan? Paola Letalbergekek dio: *begiak zerratzean ikusten duzuna da hitzez azpaturiko zure xendra.*

Zalantzarik ez. Anakin ere zahartu da.

XALA, FOR EVER

Zenbaitetan liburuak mantso hostokatzen dira. Urrats nagien antzera. Denbora muga gabea bailitzan. Paola Letalbergen *Joy Stick* nobelarekin tematzen naiz oraino. Pertsonaiak, aldion, Elektra gaizoaren kalbario bidean galtzen dabilta, izenak eta izanak galduz. Greziar mitoa maitasunaren oinarrietz mintzo da, sakon sakonetik, hitzen bizkar, minaren garratzeraino. Erraz uzten dut liburua: *Nit / Dia* telesailak zorutzen nau bai eta Eibarko Astelehena ezker-paretan, Xala gureak, hegoaldean eskaini zuen azken pilota partiduen etengabe berrikustek.

Norbaitek, noizbait, beharko luke Xalaren biografia harilkatu: hamasei urtez plazak eta segitzailen bihotzak inarrosi zituen. Iparraldeko mutiko bizitzairearen istorioa eredu interesgarria izan daiteke mugaren bi aldeetako batasunaren ideien sustatzeko, holako zinezko xederik balego behintzat... telebistako irudiak halatan literatura bihurtzen ahal dira, adibidez Paola Letalberg idazle trebearen luma pean. Jakina da, ordea, andreak ez duela kirola gogoko, FIFA erakundeko Sepp Blatterren inguruko ikerketa batean parte hartu zuenez geroztik. Eguerdiko bazkaria botatzear atera zen aipatuko ez dudan Suitza erditsuko herri bateko jatetxe panpoxetik. Pilotarekin alabaina ez dago (oraindik) horrelako bihozterrik...

Lekuinen sortu zen duela hogeita hamabost larrazken eta Xala izengoitia eman zioten, Panpi Ladutxen gomendioz 2000. Urtean, Aspe enpresak kontratatu zuenean, Sebastian Gonzalezen ondotik. Frontisaren maldako laukian pasatu zituen beraz, gaur arte, hamasei sasoi, txapelak eskuratuz eta ardura bigarren bukatuz. Ez dakit pentsatu duzuezer sekula zer nolako jenioa premiazkoa den aurreko espazio hertsia eta sublimean irauteko, esku huska eta besagaintza ausartzeko, txapa etsai, abilezia eta jukutria arerioa engainatuz, tantoak egiteko. Segur aski, erraiak iraultzen zitzaizkion, ikuslego metatuaren aupak eta txaloak entzuten zituelarik, pilotari ederra zelako funtsean. Ez zuen nehoiz asebetetasuna irri bakar batez azpimarratu: kopeta apal, tematsu, plaza orlegietako *killer* bat zen... osagarria alde zuenean.

Trinketean jolasten jarraitzeko xedea omen du. Otsailaren 21eko Eibarko partida finitzean ETBko kazetariari erantzuteko unean sumatzen zitzaion tristura sakona arintzeko balioko dio agian erabaki horrek. Milimetroan neurtu eta ebaki leku mitikoetako –aski da Elizondoko Antxitoneaz oroitzea– nagusi zela pasatu zen hegoaldeko ezker paretetako txapelketetara. Elizetan bezala isiltasuna egiten da trinketetan, pilotaren klaskek odol malguaren taupadak, erritmoan, lauhazkatzen dituztela. Txalapartaren antzera, pilotak, garai

primitiboetara bulkatzen gaitu: Yucataneko Chichen Itzak toki sakratuan ari ziren maiar leinuko pilotariak hil ala biziko erronkak antolatzen zituzten... Uste dut Paola Letalbergekin baduela horretaz orrialde pare bat izkiriatura.

2000ko ekainaren 25ean Xala eta Hirigoyen, Murumendiaraz eta Jaio bikoteari nagusitu zitzaizkion. Lekuindarra gazte hotza zen, ez zuen deusezen beldurrik eta gero bihikatu ziren hamarkadetan miretsi genizkion trebeziak oro erakutsi zizkigun lehiaketa hartan. Dohain guztiak hor zeuden, eskuzabalki barreiatuak izateko prest. Xalaren epikotasuna buruz burukoan egiaztatu zen: 2004an eta 2010ean Irujoren kontra galdu baldin bazuen, 2011n Olaizola II garaitu zuen Bilboko Bizkaia pilota lekuan. Partida, antologiakoa zela xuxurlatuko dizu Lekuine, Aiherra edo Isturitzeko edozein jarraitzailek. Baina, jakina, ez dira objektiboak... Eibarrera halaber, autobusez etorriak ziren, ahotsa Xalaren alde erlastuz. Agurrak hargatik, laburrak eta motzak iruditu zitzaizkidan, txapeldunaren itzalaren adinekoak ez behintzat. Sentimendu mikatza bazebilen airean kantxan azken azkeneko pilotakadaren hotsa elkortu zenean.

Paola Letalbergen obrari bihurtzen natzaio jada. Igande arratsaldeak libre ditut. Bizitza jolastera hupatuko naiz pala eskuan *Rail Bayonnais* arrabota arrosaraino. Soa, herriko etxera eta Aturri soraiora luzatuko dut eta Xala pilotari graziosoak pantailan segitzeko plazeraz gogoratuko naiz.

Betirako, Xala...

GEROKO EUROTİK

Saran nintzen, goiz hartan. Zeregin berezirik gabe. Kafea hartu nuen Gorka Aulestia jakintsuaren ezagutza ukigarria egin ondoan. Ostatutik atera ginen eta elizaren zeinu itzulian idatziak bat batean hoztu zituen berotzen zihoazkigun eleak: oren guztiek kolpatzen dute, azkenak jotzen du. Paola Letalbergen *Joy Stick* nobelaren bukaera aldean kausitzen den latinezko erranaren itzulpena dela badakite gure arteko mintzaira hilen espezialista distiratsuek.

Adiskide berria agurtu eta elizaratu nintzen. Aipatzeak balio du, ez baitzait horrelakorik askotan gertatzen. Begiak zerratu nituen eta haur denborako intsentsu usainaren oroitzapen lizunak bete ninduen. Ezkila hauteman nuen laurdenak mailukatzen. Jende parrasta batez inguratua nintzen. Sakristautik gizon mehe zardaia jalgi zen, larderiaz zimurturiko begitarte xifrituarekin. Apez kankailaren ahotsa sudurretik isurtzen zen, sinetsi ezin: haurrideak, jar zaitzte, egoera larrian gaude, labur eta on ariko natzaizue, duela lau ehun urte hitzen sinonimoak zerrendatzeko plazera neukan arren. Orain ez. Erran dut: egoera larrian gaude.

Futxo, banekien, prediku aulkian konkorrer eta temaz ari zitzaiguna Axular zela, *touché*. Pedro de Azpilkueta ospetsua. Salamancatik, etxerako bidean, deabruarekin tratua eginez, Fausto gureak itzala galdu omen zuen. Ez hargatik kemena, kalipua, indarra, energia. Salmoak kantatzeari ekin ziotenean hausnar tzarrean nenbilen: zer ote zuen gaurko egunean haserretzeko Axular handiak? Hobeko zuen, alaina, hil-hobiaren lasaitasunean geratzea, buru-haustea eta gaizki ikusia izatearen arriskuak ekidinez.

Aries zitekeen. Pataska gogoko zukeen.

Kantuak baretu ziren. Kopetak apaldu. Ahoak bete hortz gelditu, elizara hurbilduak oro. Axularrek Jainkoa zuen partida. Ez zuela ulertzen zioen. Berak ez baldin bazuen konprenitzen, Maimonida eta Al-Kutubia teologoekin ikasi zuenaren izpiritua ilun baldin bazegoen, egoerak ez zuen atera biderik. Zinez.

Zergatik nekatu?

Jainkoa saltsa guztietan sartzen zela ohartzeak sutan jartzen zuen Sarako izarra. Jainkoaren izenean erailtzen ziren saldoak munduan zehar eta Jainkoa ikur, balizko fededunen etengabeko itsuskeriak zilegitzen zituzten edozein erlijioetako aiatolah entzutetsuek.

-Asea naiz, gehitu zuen kolera gorrian, kokoteraino nago, gingilak kilikatzen dizkidazue, eta ez dut irri egiteko gutizia izpirik.

Axularrek, hitzak, harriak bailiran, aurtikitzen zituen fededun izutuen aurpegietara. Ez ziren horrela usatuak: bekatu txepela egin, barkamendu galdatu, kontriziozko akta marmaratu eta kontuak ahanzten zituzten. Baina aldion ezberdina zen: Sarako ingumak Jainkoa zuen auzitaratzen. Pentsamenduaren haria orratzaren zuloan kabitzea ez zen erraza: zergatik sortu zen jainkoaren kontzeptua? Soilik jendeak malerus, zoritzarreko eta beraien kontzientziekin gaizkile plantan jarduteko? Bortizkeria guztien legitimizatzeko, izan apezpiku (Baionako), jihadistista (Molenbeekeko) edo zorri-hiltzaile (Kukutegiko)...

Tua zerion ezpain izkinetatik: uste nuen, eransten zuen, jainko garratzaren itxura atzendua zela, fedearen beste dimentsio batean garatzen zirela elizatiarren urratsak, edonork nahi zuena sinetsi zezakeela nahi zuen moldean eta bizitzek libertate apurraren xendrak eskubide zituztela. Ederki engainatzen nintzen. Alderantziz baitzen. Alderantziztegiko alderantziz, nerrake.

Axular bermatu zen. Hatsanka zebilen. Erakunde terrorista eraginkorrik atzemango balu, zartagailuak pausatzerara abiatzeko gertu zegoela iruditu zitzaidan. Irain eta birao baizik ez zen. Izerdia perlatzen nabaritzen nuen nik ere mateletan behera:

-Ez diet barkatuko, ez han, ez hemen. Gaurdanik, haurride durduzatu maiteok, haren zereginaren suntsitzea da jainkoarekin egitekoa dugun hoberena. Dezagun ehortzi ostiralean zortzi. Hik eta nik bestela hondatuko dugu Titanik. Jainkorik ez, nagusirik ez, Aroztegia Eurokeria...

Ametsaren zurrumbilotik iratzar arazi ninduen ezezagun batek, ongi nintzenez galdatu zidanean. Axularrek, ohikoak zitzaizkidan lemak errepikatzen zituen eta ezin zitekeen: zure aiduru daude...

GLOBOAK LAU EHUN URTE

Hara eta hona ibili naiz, Malkorra eta Arkupeko txokolatea murtxikatzen Errepublika plazan, senegaldar adiskideak urrunetik agurtuz, lanera joatean. Hurra kraskari nabaritzen nuen hagin pean eta arratsalde batez, lankide bati, onezia seinale, puskañoa oparitu nion: ahamen lizunean, sarraski bat zela murmuratu zidan belarrira. Eta irri karkailaz zuzendu zen bere zereginera, papoa harroki inarrosiz eta ilea atzera botatuz. Berehala zapaldu nuen desio xirriztaz oroitu nintzen, Errepublika Plaza mirarien lobiroa zela ebatziz, denbora eskasez, hertsiz ez nezakeen Paola Letalberg erraldoiaren *Joy Stick* eleberriaren mendean.

Sein oder nicht sein... sterben, schlafen, nichts weiter.

Hamleten orraztatzaile ahanzi ezinaren sortzearen lau mendeetako urteburua ospatzen da egun hauetan munduan barna. Gutariko anitzek Stratford Upon Aveneko idazle handiaren lehen aipamena ukan genuen Hertzainak taldearen *baina la vida sigue igual zerak esaten zuenez Shakespearek? Ez Julio Iglesias lerdoak* lelo gordina muinetan txertatu zitzaigun garaietan. Harri batez bi txori Lapurdi-Benafarroa-Zuberoan ahoskatzen dugun eran. Euskal rock erradikalaren kultura barreiatzaile balioa naski ez da sekula nahikoa aztertu. Geroztik, ingeles jenialaren antzerki parrastak baditut ikusiak, hizkuntza ezberdinetan: ukitua nintzen, erroetaraino uhertua, nigan ezagutzen ez nituen zokoetara parpaila gisa aurtikia, taula gaineko ekintzaileen tua txinparta aurpegian itsatsia, aktoreen izerdi usaina sentitu arau amildua... Paola Letalberge ez dio besterik liburuko hondar kapituluetan.

Hargatik gehien maite dudana obra *Julius Cesar* deitzen da. Eta bereziki Marco Antonioren monologoa. Zenbat aldiz ez dut irakurri zati distiratsu hori, erromatarren mintzatzeko jaiduraren lekuko zetorkidala. Ez naiz trebea erretorika alorrean baina Shakespearek Plutarkoren lekukotasuna erabiliz teatrorako moldatu zuena zoragarria zait. Brutus eta Cassiusek antolatu eraiketatik lekora Marco Antonio zoharra forumera atera zen hilotza omentzeko: hirugarren aktako bigarren partearen hasieran Cesar negartzen du, oldea, konspiratzaileen alde delarik, baina Brutus eta honen lagunak gizon ohoretsuak –Marlon Brando, Mankiewicz-en 1953ko filmean: *and Brutus is an honorable man, so are they all..* - zirela errepikatuz bukaeran Erromako herritarrak akuilatu zituen irakurtzetik ezin utzia den *Galiako Gerra* miresgarria izkiriatu zuenaren hiltzaileen gibeletik. Errabiaz.

Juan Gartzia itzultzaileak Shakespearen sonetoak erein zituen abandonuaren karduek estali gure elge biluzietan. Aukera dugu olerki horien berriz murmuratzeko eta entzuteko. Betikotasunaren zigilua txertatzen dute egunerokotasun zirrikatu eta desesperatuan. Aitortuko dut, halatan, iragan igande batez, Gabi Mouescaren elkarrizketa interesgarria, draga draga xurgatzean, iparraldean garatu borroka armatuaren ondorioak zinez baikorki ateratzen zituela, zurrun, ziur, mantso, heroi antzera, lan ongi eginaz pozik, Marco Antonioren larruan urtu nintzela, gaizki finituko nuela jakin arren: *Mouesca is an honorable man, so they are all...* espero dut, behingoz, Kleopatra aiduru dukedala Alexandriako portuan.

Williamtxo, nola zaitzakegu eskertu?

Galdera bera egiten du Paola Letalberg nobelagileak. Zelan bihurtzen da globoa, ardatz magnetikoaren inguruan, Axular jadanik Dantxarienekoa denda baten izena delarik? Arrazoirik behar ote da haserre ibiltzeko? Kexua ez dea kontentamendu satisfosa baino pizgarriagoa neuronak bipil atxikitzeko? Zergatik lainoz troxatzen dizkigute argiak eta garbiak mantentzekoak genituzkeen pentsuak (txikiak, hutsalak, soberatan arrotz hizkuntzetan ernaiak...) eta bizitza mututuak?

Udaberria hor da. Apirila, hotz eta gorgotz. Potoloegiak dira Letalbergen hausnarrak, eguzkia, bidea, ipularrak, zuriz eta gorri azpatu xendrak nahiago ditudalako dagoeneko. Gure historiaren pare *happy end*-ik ez duen *Nit I Dia* berrikusiko dut osorik Baionako Bestak aitzin. Eta oihua dantzut, gauean zutik: *nothing will come of nothing*, Aroztegia lapurre, zaindu gure lurre!!!

MY GIRL IN THE STREET

Nit I Dia ikusi duenari iruditzen zaio telesailik perfektuena irentsi duela lau hilabetez, berea ez den telebista eta hizkuntza batean. Badaki, bai, amerikarrek bereziki, lan gotorrak ekoizten dituztela eta gosea kentzeko adina itxura zirraragarri lerratuko zaiola pantailetan behera. Umezurtz sentitzen dela aitortzekoa du, nolabait bere buruarekin zintzo jarraitzeko. Halaber gertatu zitzaidan niri Paola Letalbergen *Joy Stick* nobelaren azken orrialdea itzulikatu nuenean: malkoa punpatzen nabaritu nezakeen begi izkinean...

Egundainoko umezurtzak garen jende abandonatuak gara. Hitz zehatzez bizidunaren segurtasun boterea larrutzen duten bost gaitzetan sartzen da utzikeria edo utzitasuna, nahieran. Letalberg andereak jorratzen du alor minbera hori eta nortasunean bermatzeko indarra kausitzeko agian, gomendatzen ahal genioke Bruce Spingsteeneko kontzertu batera joatea eta han *Born in the USA* oihukatuz erraien sakoneraino gozatzea: *oh my girl, my girl...in the street*, karrikak, Baionakoak edo Sara Grau eta Aitor Otxoak oinezkatzen dituzten Bartzelonakoak izanagatik. Telesailetik, nobelatik, kontzertutik eta pasabide lanjerosetatik onik ateratzen denak ez du emazte istorio xaloak kontatzen akitzen diren bobona barregileen egiaren ezpondetan zalantzaz burtzoratzeko xederik.

Bazterrak urratzeko gutizia ernatzen zaigu, jagoitik, seietatik aitzina argiak ortzimuga sutzen duen tenorean. Bazterrak urratzeko (bis) eta forma gramatikalak bihurritzeko desioa, barbarismo hutsak diren *bobona* bezalako neologismoak asmatuz garatzen dena. Zaharkeriaz, ohiko hausnarketa morbidoz, haurtzen gaituzten xukakeriaz aseak garela ezin ukatu. Iraganarekin gisakoak, behar den bezalakoak, planttakoak agertzen tematzen gara, oraindik, berrogeita hamar urteko zirika eta jazarpen moralak jasan duen pertsona amilduaren moduan. Beldurrarekin gabiltza, piztiak berriro iratzarriko bailiran, ahanzten edo bederen ez aipatzen saiatuz. Herrialde zapaldua gara, zinez, baina ez Frantzia eta Espainiaren partetik, komunzki plazaratzen den maneran, baizik eta gure artean oilar dabilzan eta alde bateko zein besteko zurruntasun hipnotizatzailea hedatzen duten burkide apurren aldetik. Paola Letalbergekin egoera xeheki ikertzen du *Joy Stick* eleberrian.

Ikasteko asko daukagu.

Azkorri batez bizkarretik minez esnatu nintzen. Lanera behar nuen derrigor. Eguna huts egiten baldin badugu larderiartzen gaituzte nagusiarekiko bekoz bekoetan. Inor ez dago gehiago

hausten direnen ordezkatzeko. Entzungailuak sakatu nituen eta belarritik *The Boss* erraldoiaren musika isuri zitzaidan. Zutik niraukeen. Saretik deskargatu Baltimoreko ekitaldiaren grabaketa pirata zen. Kemena piztu zitzaidan, baina Errepublika Plazan merkatuko txabolak altxatzen ari ziren saltzaile senegaldarrak agurtzera atrebitzean, absentzia baino ez nintzela susmatzen nuen. Kasko zokoan perpaus mainguak dantzari zebilzkidan: zoriona etorkizunerako promesa da, bizitzari ez diot zentsurik aurkituko orainaldi honetan, nire hitzak ez dauka berme arrazoiturik...

Anbiguetatez hantu iritziak airean daude. Gasolina banatze zentroak blokatuak dira. Kontsumo gizartearen akabera da. Paola Letalbergen trakako idazleek giro nahasiak gatibatzen dituzte, paperean etzanez menperatzen meta irakurleari bazka oparitzen. Liburuak bukatzen dira, maleruski, eta hostoak plegatzean nostalgia astunak lehertzen gaitu. Sinesgarritasun ideologikoaz axolarik ez duten testuak eskas ditugu, pornografia politiko piramidalaz harago doazenak, gaztiguzko bakartasun merezituak, bizpahiru izenen artean dudari datzala bihotza, ez jakin zein hauta, Dostoievski ala Bruce Springsteen.

Martxoaren laurogeita hamalaua da. Gauak Zutik higitzen ditugu, bihiak irintzen eta espelta ogiak adelatzen. Deabruak gure baitan aterpetzen dira, denborarekin bizkarreko minak eraginez. Auhena batean *my girl my girl* marmaritzen dugu eta laguntza deiak luzatzen: *helep I need somebody...*

Atzo, maiatzak 28, ospatu zuten Hazparnen, Hazketa zabortegiaren behin-behineko zerratzea.

DURASEN ESKAMAK

Kirolaren aitzakian gerra irudiak hedatzen zaizkigu pantailetan: Europako futbol txapelketa nazionalismoentzat plazarik egokiena dela ematen du eta ondorioz karririk suhartzeko dira, behiala munduko zenbait herrialdeetan gosearen oldartzeek sortu itxurak oroitu araziz. Baina larrialdi egoeraren kariatara biderkatu polizia dispositiboaren eta talde etsaiaren sustengatzaileen aurka pataskatzen direnak ez dira, ez, gose, are gutxiago egarri. Alderantziz, bargoen pare, gangarreraino aseriko gizon eta mutikoak ditugu jarraitzen ke arteko ihesetan. Kirola sozietatearen miraila zehatza da eta bertan dagoen biolentziak bizitzaren zirrikitu guztiak tapatzen ditu. Lurra, laster, niri hainbeste gustatzen zaidan Anselm Kieferen margo zabal baten antzera ernatuko da, hauts eta errauts, beltz zoharrera iritsi ezin.

Orlandoko *Pulse* dantza-lekuko sarraskiaren biharamunean, ez dakit zergatik, Marguerite Duras begimendu nuen idazteaz solasean aspaldiko INAko dokumentalean. Ukitu ninduen eta arrats hartan, emaztearen ahots lakarrak, sehaska kanta gisa, loeria malgura eraman ninduen: bakartasunean baizik ez daiteke idatz, bakartasunik latzenean alabaina. Eransten zuen liburu bakoitzak bere baitan huts bat edo inperfekzioa bat zekarrela eta horrek zuela funtsean liburuaren balioa egiten. Bukatzen zuen erranez gaurko hamarkadetan – laurogeita hamarrekotik ari zen- sobera liburu leun plazaratzen zela botere erreal, faktiko eta sinbolikoei, atsegingarri suertatzea amets. Durasen obrak, Bachmann eta Celanen poesien moduan, Anselm Kieferen taula apokaliptikoetan kabitzen ahal litezke: hitzaren indar ahula eta vice-versa.

Rainbow Flag ederraren pleguetan *selfia* bat egin nuen Baionako udaletxearen maldan Orlandoko masakrea salatzen manifestaldia bukatzean. Jende multzo bat ginen homofobia urrina zerion krimena gaitzesteko. Isiltasun minutu bat egin genuen eta isiltasun horretan hazi zitzaidan Durasen *Détruire dit-elle* eleberriaren berriz irakurtzeko gutizia, egoera bezain larria, bistan dena. Aldi hartan loak ez ninduen gatibatu eta eguna altxatzen miretsi nuen geltokiaren gaineko sasietan. Egia, bazterrak, jendeen buruak eta bihotzak, El Khomri legearekin egunen eta bizitzen antolaketak erabat suntsitzeko desio totalitario bat nabaritzen dela eta zorigaitzez hau ez da fikzioa. ARTE katean ikusi nuen ongi sorturiko emazte gazte bat –Emmanuelle Duez...- hatsa hartzeko betarik gabe, prediku neoliberal pozoitsua destilatzen: ohituretan, erritmo hipnotikoetan erroturiko langile dorpeok apatia likitsetik ateratzeko premia aldarrikatzen zuen,

SMIC-ean ordainduriko pribilegiatuak ginen, gehiegi alabaina, txinatarrekin erkatuz, ez ginen ohartzen aski ohoratzen ez zen nagusigoaren heroismoaz, eta finean, behin-behineko lan kontratuen desagertzea aukera ona zela azpimarratzen zuen. Une horietan literatura ezinbestekoa bihurtzen da, Duras eta Dostoievski bezain Anselm Kieferen iluntasun organikoa suak erre oihalaren espazioan...

Gure artean badago naski biolentzia handiko berantetsi sozial lehergarri bat. Eta biolentzia ez dator CGTko *terroristen* partetik, MEDEFko psikopatek sinetsi arazi nahiko luketen bezala. Laster, CGT-a, ISIS-en abarra baino ez dela aldarrikatuko digute, larrialdietan burtzoroa eraginez eta manifestaldiak debekatuz, eta orduan abiatuko da aberatsenek aspalditik desio duten mende berria: herritarrak ezpainak josirik, siderazio salbaiak hormaturik eta eroturik geldotuko dira estresa post-traumatiko egoera lanjerosean... ez dena (oraindik) Mutrikuko *I Tre Velieri* partzuergoko emazte langile taldearen kasua, nagusi baliatzaile eta tiranikoen atzamarretatik jalgitzea lortu zutelako enpresaritzaren destinoaren on-gaitzak dastatzen hasteko. Duras ere ikusiko nuke Barbara Goenagaren zuzendaritza pean, Elena Irureta, Itziar Atienza, Karmele Larrinaga, Maria Urzelai, Ainara Ortega eta Amaia Irazabalen konpainia gordin-berde gozagarrian *Eskamak Kentzen*...

ETB-ko telesailaren bigarren sasoiak (ailitza!) Anselm Kieferen taula batean hauts zital aurkituko gaitu: *être un écrivain c'est ne pas le savoir*...

EXPRESSIS VERBIS

Orain, ziur aski, jende gehienak oporretatik itzuliak dira, larrazkeneko depresioaren sareetan gatibu eta engoitik ezinduak, hurrengo pausaldiaren aiduru. Ni ere ibili naiz Baztanez Baztan, Orabidean barna, haize hego goiztiarrak inguruko gailurrak balakatzen zituela: ez al da egia, bakantza asteetan, herri hau zeharkatzean poeta alfer eta nagia bilakatzeko arriskua dagoela? Eta hori, noski, ez da hain ona famarentzat, nahiz eta izakia ez den bakarrik lanerako egina. Denbora irakurtzen pasatu lezake, edozer, Kanten kantikak, Nietzschen nixtak eta Kafkaren hazkak. Halaber, sei ehun orrialdeko liburu baten luzeran sinesten ahal luke bizitza eraldatzeko gai dela, Peter Sloterdijken obra mardularen gomendioei jarraituz. Kanbiatzekotan, behar da, nolabait, norberaren baitan deika ari den kaosa, huts materiala eta askatzailea den amildegi minerala onartu. Ez gara horretan...

Mihi garratzak hiztegia neurrian erabiltzera derrigortzen ditugu, zer gerta ere, Loiolako saildu atrebituak eta ñabardurak ñabardura, Sukarrietako Sabinok menderen mendeetarako formateaturiko herri honetan: loriatzen gara eleak aukeratzen, perpausak aitzinetik osatzen eta behar denean isiltasun une misteriotsuak zedarritzen. Urrundik gatoz, uda guztiez, bizirik irauteaz harrituak. Halatan, bakartasun teknikak lantzen dira, izan berezia, bakuna, sekula santa, Francis Underwood handiosaren ebazpen zinikoaren ez entzuteko: *artalde hautatu du opzioan...* ama-ontziaren urmaelak inarosten dituen artaldea zorrak maneatzen du, dagoeneko ez baita beste harreman modurik jendeen artean: zordunak gara betikoan, hartzaileak sasietan gordeak daudelarik.

Rainer Maria Rilke zoratu zuen Apolo jainkoaren paparrak Louvresko erakustokian miretsi ahal izan zuenean. Berehala, influentzia pean izkiriatu zuen olerki ospetsuak, geroztik, garunak zirikatzen dizkigu: *du musst dein Leben andern*, bizitza aldatu behar duzu, alegia. Sortaldeko oldeak ibilera bortxatuan etorkizunera akuilatzen dituen lemaren asmatzailatzat jo dezakegu. Rilkek aipatzen duen (ziklopearen) begiak izkina orotarik ikusten gaitu eta sapaurretan ezkutatu arren hegi bakoitzetik ikusgarri gaude: ez dugu ihesik. Behar bada Elokadiko artzain etxola hotzean aurkitu dezakegu aterpe, datorren abenduaren lauan. Maria eta Kattalin, hauxe da mezu kriptatua, zuentzat: mantak ez ahantzi. Poemako Apolok bururik ez du, sexurik ez du, besorik ez du, zangorik ez du, enborra baizik ez da. Baina distiratzen du gauean, larrazkeneko ilargi beteak izotzaren hedaduran bezala.

Apolo askorik ez dago gure artean. Batzuek uste duten arren, perfekzioa ez da omen da mundu honetakoa. Lanaren bidez, mintzairaren auto-kontrolaz, eskola dela medio, meditazio saioak ardatz, egitura sozio-ekonomiko osoak hobetzera deitzen eta gehienetan behartzen gaitu: manuak eta ordenak agertzen dira egunkarietan, pantailetan, mezetako brebiarioetan. Bizkitartean, beraien irudira moldatu nahi gaituzten aberats banda okituek afera likitsak kudeatzen dituzte kartel klandestinoetan, behialako Medellinekoa txiki eta garbi uzteraino. Dirua eta boterea dira, dagoeneko, herritar desjabetuaren amets finkoaren zutabeak. Prest gaude, halatan, gobernu eta parlamentuetara, sorik gabeko munstroak bidaltzeko...

Baina utzi ditzagun etorriko diren balizko katastrofeen aipamenak gerorako. Ukanen dugu orduan ere zer erran. Peter Sloterdijk pentsalari alemanak alor minatuak ditu jorratzen eta irakurleari liburua aurpegira zartatzen zaio, garairik loriosenetan bezala. Modan da idazlea Europan, Ipar Ameriketara, malenkoniaz apaindu bere ikusmoldeak interesgarriak dira, elitearen talaiatik kontsideraturik bederen. Ez da zinikoa, ez da inozentea, ez ni bezain beste bederen. Testua ederra da eta muinetan galdera harrigarriak ernatzen nabaritzea gozamen hutsa, erantzunak askotan eskas eta eskasak izanagatik.

Ezinezko erronkak gainditzen saiatzen gara, txikitatik gure buruak apaldu ditugu, bizitza osoa marmolezko tentsioak malgortzen digula. Aldaketa ordena absolutuari behingoz muzin egiten bagenio: deboila larrien arduradunak ez dira sekula... *barkatu* marmaratzera plegatzen.

DYLAN IS DYLAN

Bob Dylanek ez zuen sekulan nahi izan askok irudikatzen zuten profetaren tokian kokatu. Logikaz espero zen gunean igurikatzen genuen –ni ere artaldean sartzen naiz behigoz...- eta hiru ehun eta hirurogei graduko bihurra hartzen zuen, berak ere pentsatzen ez zukeen eremuetan alderrai ibiltzen hasteko. Robert Zimmerman handiak, Fargo ondoko Duluth Minnesotako ume mokoak, Elvis Presleyren musikak zoratu zuenak ez die oraindik ere Suediako Nobel sariko epai-kideei erantzun eta naski ez du komentario izpirik atera mass-medietan. Jende parrasta bat kezkatzen hasia da, egiazko idazleez gain, saria egokia ez den artista bati joan delako aurten. Alabaina pronostikoen arabera Adonis siriarrak poeta, Philip Roth amerikarra ala Ngugi Wa Thiong’o keniarra igurikatzen ziren. Geroztik aurka diren idazleen fronteak eraso darama egunkarietan berrogeita seigarren orrialdeetan, kirolaren, iragarki sailkatuen eta horoskopoen artean. Frantsesak lehen lerroan dira Pierre Assoulinen gibelean: saria bardo soil bati eman omen da eta kolpe larria da literaturarentzat. Gainera ez da segur Estokolmora hegaldatuko dela, beraz...

With god on its side...

Askorentzat alabaina kantaren alorra ez da literatura eta beraz ez du bere eremuaz kanpoko saririk merezi. Hondar hiruzpalau mendeetan idatziaren munduak, liburuak eta beranduago nobelak bereziki iristekoa zen maila finkatu zuen gorenean. Idatziaren indar betearen izenean baztertu ziren ahozkotasanaren altxorak, eresiak, auhenak, baladak, bertsoak, Mainzeko Gutenbergen berunezko inprentetatik ateratako paperak egundainokoan hobesteko. Ustea barreiatu da irakurria ez denak pasibo, berdintsu eta kolektibo batean urtua egiten gaitu jakintza mota bat ahotsaz heldu arazten digun rapsodaren aitzinean adibidez. Liburu baten irekitzeak aldiz aktibo eta bakarti, kasik jainko txiki beraz hitzaren parean. Taula gainean, kanta bat, edozein, Bob Dylanen *Masters of the War* edo Maddi Oihenarten *Egün bereko alargüna* izanagatik, saldoan hartzen dugu, ukiduraren mugetan, askotan ez dugula arrazoinamendua erabiltzen kontzertu batean gaudenean. Iragan maiatzean bezala, Anoetan, milaka kidek Bruce Springsteen bozaz lauhazkatzen genuela, ilunean, begiak hertsirik.

The answer is blowin' in the wind...

Sariek ez dute sekula adostasunik lortzen. Ez hemen, ez han. Alderantziz. Kritikak eta galderak ernatu arazten dituzte eta funtsean, ooren buru, ez da ondorio makala. Zer da literatura? Nor da idazlea? Batzuek diote liburuak plazaratu dituen dela idazlea, apurrek

ihardesten dietela liburuak ez direla irizpide bakarrak eta abestiak ere melodiak eransten ez zaizkien bitartean poesiak direla, *Matrix* edo *House Of Cards* telesailaren oinarrian, paperean etzan aditz distiratsuak daudela. Idazlea baino zikoitzagorik ez dago lurraren azalean –lasai, nire zehazteko ere ez dut beste kualifikatiborik. Bestalde Roland Barthesek zioenez, literatura irakasten dena baizik ez da. Gainerakoan, formak zein edukiak anitzak dira eta guztiak zilegi, idazkuntza komunikatzea eta jendarte bat islatzea, zergatik ez jorratzea xede denean.

Knock, knock, knockin' on the heaven's door...

Nobeleko aurtengo epai mahaikideek halatan liburua eta irakurketa bereizi dituzte eta zenbaitentzat une horretan hasten da mendebaleko europar kulturaren gain-behera. Ikuspegi katastrofistak ugariak dira azken aldiotan. Ez dakigu gehiago neurria zaintzen. Alta *Desolation Row* izkiriatu, sudur ahotsez eta bi gitarrez zurkaizturik kantatu zuen artistari aspaldian zor zitzaion horrelako ohorea: gauaren minean, desesperantzaren mugetan, EH barnealdea zeharkatzeko orduan entzuteko kantarik egokiena da, ederrena ez baldin bada. Nork ez du begietsi *No Direction Home* dokumentala, 2005ean Martin Scorsese ospetsuak zuri-beltzean bildua? Hiru oreneko bidaia harilkatzen digu Bob Dylanen itzalean. Zintzotasunaren holtzean dilinda.

On Desolation Row...

Leku egokia Nobel Saria emateko aurten.

AMETS GAIZTO ATOMIKOAK

Literaturako muturreko esperientzia da zartatze atomikoa irudikatzea eta horren ondorengo galaxiaren asmatzea. 1945-ko abuztuaren 15ean Hiroshima eta Nagasaki mendeetarako kolpatu zuen *Enola Gay* amerikarren H bonbaren inguruan lan asko garatu ziren eta pentsamendu berri bat ernatu zen, katastrofista bezain apokaliptikoa neurri handi batean. *Mad Max* saileko filmetako pertsonaia biolento eta paisaia suntsituak ikustean nonbait eta nolabait istorioaren oinarrian behialako zartatze atomikoa dagoela susmatzera behartuak gara. Energia iturriak agortuak dira, sozietatea ezabatua da erabat, baina Notbushen sortu Tina Turner uhergarriak oraindik ere *we don't need no more heroe* oihukatu dezake. Dena ez dela galdua seinale...

La Décroissance hilabetekaria erosten dut Baionako Alsace Lorraine karrikako Balto taberna-denda lagunkinean. Aldizkaria ireki aitzin azken orrialdeko artikulura lehiatzen naiz: Negawatt elkarteko kide batek gaurko nuklear industriaren egoeraz zutabe jarraitua orrazten du eta nik, gazura bailitzan, irentsi dezaket EDF, AREVA, EPR eta atomoaren destinoak marraztu gertakari sinets ezinen kronika argitsua. Aktiboa baino, irrati-aktiboa sentitzen naiz erraien sakonetik, ikara, daldara eta txika txika zurrun. *Kraftwerk* krautrock taldearen musika zati elektrikoa bilakatua banintza bezala. *J'adore!* Japoniarekin batera, Frantzia da zentrala nuklear kopuru gehiena kausitzen eta hauen erabilpen epea, berrikitan, oraino 20 urtez luzatu zuen Ségolène Royal ekologiako ministroak, jakin arren anitz eta asko azken hatsetan direla jadanik. Bospasei geldituak dira, azaro teknikoak direla kausa.

Frantziako arduradunak energia nuklearrari biziatsuak dira, ezin higuinduak, drogatuak, obsesionatuak. Diru publikoa zurrupatzen duen putzua da, hondorik gabekoa. *Radioactif* izeneko eleberrian, Vincent Crouzet idazleak AREVA enpresaren inguruko finantza alorreko manipulazio erraldoiaren mekanismoak atalez atal ikertzen ditu fikzioaren sarea baliatuz. Kongo ekialdean eta Namibian erosi zuen uranio ustia leku pare bat bere funtsezko balioaren haragoko dirualde munstro baten trukean. Bi miliar dolar pasako sos publikoa nora joan den ari dira Parisko epaitegiak aztertzen, 2007 eta 2012an gobernuan ziren txorimaloak deklaratzera deituz, ohiko mahai peko eta atzera-komisioak galdezka gai alabaina, hala nola Patrick Balkany Levalloisko auzapeza, Sarkozyren eskuin apuña. Anne Lauvergeon, alias *Atomic Anne*, AREVAren

zuzendari ohiak ere arazoak ditu justiziarekin. AREVAren bankarrota iragarria da eta menturaz herritarrek zergetatik ordaindu beharko dute bakar batzuen handi nahikeriaren hutsala!

Vincent Crouzetzen *Radioactif* nobelan eskandala horren itzal gunek plazaratzen dira, zehazki, lekuak eta pertsonaien izenak aldatuak direlarik. Nortasunak ez ordea. Errealitatearen eta fikzioaren artean ibili da egilea eta irakurlea, dakienetik, deituren gibelean benetako izanak jartzera jolasten ahal da abantzu lau ehun orrialdeetan zehar. 2014-an atera zen, jadanik AREVA aferaren nondik norako gehienak ezagutuak zirela. Baina kontuz dabilta guztiak, jukutriaren eta iruzurraren birusak kontaminatutako enpresarekin, nagusiek auzitegietara edonor igortzeko ahur prestua dutelako. Nuklear sakro-sainduaren aurkako iritziak azaltzen dituzten aldizkarietara adibidez, publizitate bidezko laguntzak ere ukatzen dizkiete.

Atomoaren garaia pentsamenduaren iraunkortasunaren zero gradua bihurtua da mende erdi honetan. 1956an Günter Anders filosofo alemanak, Hannah Arendten senar izanak, izkiriatu zuen bi tomatan banaturiko *Gizakiaren Zaharkitasuna (Die Antiquiertheit Des Menschen)* hausnarketa sarkorren zartatze nuklearraren (gerrarako, entseguetarako ala nuklear zibilerako engoitik) ondorio etikoak bihikatzen dizkigu: antsiaren indar hedatua, prekaritatearen hegala, nihilismoaren normaltasun izugarria, sekretukeria maltzurra, atomoaren mutil izatera apaldu mundu mailako jendartearen kritika larrutua eskaintzen zigula.

You want it darker abesten zuen Leonard Cohen (jada) zenak.

LAU HATZETAKO BI LAN

Urtea bukatzeaz da. Hemendik gutxira egunkarietako zutabeak eta pantailak aurtengo irudi erranguratsuz (hauze hitza, Lapurdi-Bizkaia balizko sinkretismo tinkoaren lekuko!) mukurutuko dira norberaren baitan oroimenak, argazkiak bailiran, sailkatzeko jaidura piztuz. Etorkizunak malgortzen gaituen neurrian zaintzen ditugu orain hurbila eta iragan (l)urruna. Nehoiz ez dut bilanik egiten, iraganik, orainaldirik eta gerorik gabekoa naizela nabaritzen dudalako txiki-txikitatik. Abendu hastapen honetan hargatik lau hatzetako errebaso bat eginen diot bururatzen doan 2016 honi. Inperfektua eta subjektiboa arras.

Liburu bat aipatuko nuke lehenik Paola Letalbergen *Joy Stick* mardulak gatibatu ninduen arren seipazazpi hilabetez. Juan Gorostidiren *Zazpigarren Heriotza* saiakera irakurri nuen kapituluz kapitulu, batzuek azpimarratu zizkieten huts gramatikalez axolatu gabe, idazlearen gaztaroko agerpenek nire hamazazpi udaberrietara eraman nindutela, nik ere oharkabea, euskaldunon borroka armatuaren mende Erdiko afera likits horretan nuen erruaz arranguratzera. Galderak nituen. Ihes egiteaz salbu erantzunik ez. *The act of Killing* begimendu nuen eta itzuli nintzen behin ukitu ninduen Rithy Panh Kanbodiako zinegilearen *L'Image manquante* dokumentalera. Egia hor zegoen nonbait, aurkitu ezin bezala, egundainokoan egia hori jasanen dugun ala ez hausnartzean datzala gogorrena, egia horrek guhaur gaituelako zalantzaz lehertuko.

Bigarren aldi batean pilota partidarik perfektuena ikusi nuela aitortuko nuke. Eskoletan eredu gisa erakustekoa. Eta ez bakarrik pilota eskoletan noski. Faboritoetan jarri dut, martxoaren 12an Bilboko Bizkaia pilota lekutik, Errazti eta Lizartzak ahotsak haustear komentaturik ETB Kantxak eskaini zigun Urrutikoetxea-Olaizola II (22) eta Rezusta-Irujo (12) pareen arteko lehia distiratsua. Tanto bakoitzean zintzurra larrutzen zihoakien: baina zer da hori? Zoragarria zen, literarioa, epikoa, eta noiztenka ETBko *Nahieran* saileko pilota orrialdera lerratzen naiz, batzuk euskaratik frantsesera bezain aise, plazer atabikoa errepikatzeko. Dagoeneko Irujo handia, arrano kolpatua, kantxa bazterrean dago eta belaunaldi berria ari da gibeletik bultzadaz.

Hirugarren hatza uzteko orduan barne inarrosi nauen telesaila bat bipilduko nuke. Amerikar, ingeles, suediar eta islandiar krimixuraz hazi eta hezi euskal idazlea naiz, besterik gabe, eta ez da nire aurarentzat biziki ona. Dante-ren *Komedia* ere, hiru sasoi dituela, zatikako

idazki-sail distopikoa dela deritzot. *Black Mirror* eta *Homeland* haren bosgarren sasoiaren artean txapeldun egin dut 2016an TV3 kateak ekoiztu eta hedatu *Nit I Dia* erraldoia, hamahiru atal, bata zein bestea baino sinetsi ezinagoak, eta Sara Grau ikerlari anbigua, argia eta iluna bere baitan pataskari zebilzkiona. Mehatxuz kartzelaturiko eta Ada Colau buru duen Bartzelona tentsioduna gustatu zitzaidan eta Aitor Otxoa pertsonaiak irun euskaldunekiko haria. Katalanera ikasteko baliabide hoberik ba ote da? Ez dakit jarraituko duenez. Ageriko. Anartean *La Riera* kulebroiarekin asetzen nabil. Ez erran inori.

Eta azken urratsa eramanez dut musikarekin. Maiatzaren 17an milaka kidek Bruce Springsteen miretsi genuen Anoetan baina nik bereziki gogoan dut Maite Arroitauregi alias Mursegok Baionako Atalante zinema gelan eskaini zuen berrogeita bost minutako show ahantz ezina, kanta oroigarriak jende gehiengoarentzat frantsesez ere aurkezten saiatuz. Gauza arraroa, seinalatua eta menturaz nolabait eskerrak merezi dituena. Duela zenbait urte Eako poesia egunetan aditu nuenetik fan naukan artistaren *Eusnob* abestiak, Hiri armera batentzako kunbriak eta beste hainbat zatien musika alorreko imajinarioaren askatasunak zorutzen nau *taigabe* (ohore zuri Super Txope!). Mursego, Andere-orkestra deitzen ahal genuke duda izpirik gabe.

Horrela maite nuen Euskal Herria librea, bizitorea, (ele) aniztuna, ironikoa, zirikaria, bihotz bera eta baketsua. Aste eta erdi dago urtea borobiltzera.

Baise-moi zioen Virginie Despentesek.

LEKAROZ NEGU AROZ

Ibiltzen hasten garenean paisaia baten barnetik, ematen du bideak, aireak, usainak, hotzak, denak gorputzaren zirrikituetan kokatzen direla behin betiko. Memoria deitzen diote horri zenbaitek eta halaxe izango da menturaz. Ene ustez memoria baino zerbait gehiago dela iruditzen zait, izen egokia zein liteken asma ez dezakedan arren. Sinesten dugu beti hitzaren medioz zurkaizten dela oroitza, hitza dela denetan baliabiderik hobetsiena, hitza eman eta hitza harturen artean jolasten gabiltzala etengabe. Ez da arras hala, molekulak, zilbor hestearen materia idorrek, tuaren gaziak, malkoen zitalak bezalako zerak dantzan jartzen direlako leku bat, gertakari bat, deboila kolektibo bat garunetan iltzatzeko orduan. Xendra txarrean lerratzen naizela iritziko du irakurleak, galtzen garenean gutariko puska bat berriz aurkitzen dugula jakinagatik.

Ez dezagula gaur aipatuko dudana nostalgiarekin nahastu... ez baitu loturarik bat. Atzera itzultzeko gutziarik ez dago memoria enpatikoan, funtsean nehor ez baita, izan zen, maitatu eta gorrotatu zuen ordoki biluzira bihurtzen ahal, are gutxiago urak, lurak, makadam ketsuak, uholdeek edo hormigoiitsuak estali eremuetara. Aitzinako itxura bihotzean datza, kutun eta txukun, begiak zerratzea aski delarik burumuineko pantailan koloreak, sentsazioa, sentimenduak, nortasunak berriz haztatzeko. Gustatzen zait bereziki Euskal Herrian zehar paseatzea, oinez anitzetan, zakua bizkarrean, gaur harilkatzen ditudan itxura horien bila. Zuberoa, Bizkaia, Amikuze eta Erribera liluraren berdinarekin zurrunbiloan atxikitzen ditut, altxor.

Liburu asko bada naturaren suntsiketa aztertzen duena. Rachel Carson (1907-1964) handiak, 1962an amerikarren DDT gai kimikoak –Koldo Izagirren azken laneko ipuin batean ere ageri dena...- eragin minak salatzen zituen Udaberri Isila (*Silent Spring*) bukatu dut. Borroka luzea eraman zuen eta botere publikoek laborantza alorrean zikinkeria hori debekatu zutenerako Rachel Carson zendua zen. Gure etxe zuloetan uluak kalitzeko erabiltzen zen produktu horretaz nor ez da gogoratzen? Jende arruntez osatu olde mutu kutsatuak nituen kasko zokoan, iragan igandean, Lekarozko karrikatik belaian ikusten zen galtzada bati jarraituz Aroztegiara iritsi ginenean, Baztango (*H)l/betza* nobela beltzaren ohorezko ekitaldiaren kariatara. Ondoko urteetan menturaz erabat aldatuko da inguru hori, urbanizatuko da salbaiki, etxe modernoak eraikiko dira, bederatzi zulorekiko golf bat zabalduko da, baina gure buruetan oinez eta hotzaren mende egin genuen ibilaldiko irudiak baizik ez dira bizi aztarna bilakatuko.

Elizondoko saihets bidetik lerratzean intimoki jakingo dugu hor beste errealitate bat izan zela, gizaldi ahantzietara ihesean joan beharrik gabe.

Antzerkiak, antzerkilari pare bikainak eta ahots gorako kontakizunek dute errua, bai eta oinez lehiatzean, gorputzean mugitzen diren ezinbesteko ehun mila piezek. Pausuek presentzia fisikoa ziurtatzen ziguten, lokatzak zapatetan, haurren irriek, gatu beltzaren punpek. Orainaldiaren sekretuetan itotzen gindoazen astiro, izotza urtzen zihoala, Autza gailurra, Hokusai japoniarraren estanpetan bezala, elurrez zuri zela eta laino zoharrez troxatua. Aroztegiako afera segitzeko aukera izan dugu eta badakigu ezer ez dela erraza izan Baztango herritarrentzat: lapurreta sinboliko eta erreal bat gertatu zen, gertatu da, gertatuko da. Demokrazia ukamen argi bat. Hargatik arteak balio du, hain zuzen, gertatuarekiko harreman pazifikatuagoa edukitzeko asmoaren egiaztatzeko. Bestela bizitza bera liteke ezinezkoa. Onartzeak alabaina ez du amore ematea erran nahi, eta antzerki ibiltariari esker Aroztegia nolakoa zen ez zaigu burutik aterako.

Nahieran ikusi dezaket alabarekin Nafarroan behera abiatzen ginela dagoeneko pantanoaren uraren azpian dagoen Itoiz herriko elizaren maldan hartu genuen argazkia: ukitzen nau, hiru hamarkada beranduago. Bertan lurralde bat ito zen, hizkuntza bat, errepide bat eta agian ilargi beteko gauetan Itoizko zeinuak jotzen entzuten dira oraindik. Aroztegian behar bada etzidamu sorginak hautemanen diren moduan.

FIODOR 8

Ez dakit zer hauta. Hori da bizitzarekiko dudan ezintasunaren seinalea. Hondarrean Fiodor Dostoievski eta Wachowski anai-arrebak maitasun-zaku berean sartzen ditut, bihotza plastikozko poltsa arrunta baldin bada bederen. Alabaina, aurtan, *Sense 8* telesailarekin zorabiatu naiz, zeinetan (erlatiboen erlatibotasuna) generoa, nortasun sexualaren anitza, mundu mailako esku-zuri saldoen politika, erlijioaren arazoa irudi distiratsuetan aipatzen diren Bonbai, Seul, Nairobi, Berlin, Chicago, Mexiko, San Francisco eta Reykjavik hirietan barna. Pertsonaiak gogoan geratu zaizkit, itsatsiak: Nomi (Not me), Capheus (Morpheus ohiaren oiharra?), Will, Kala, Wolfgang (Amadeus noski), Riley Gunnarsdottir (ametsetako DJa) Sun Bak, Lito (gaytasuna nola plazara ez dakiena) sentsitiboak dira, bata bestearen baitan sartzen ahal direlako lurreko zazpi muturretan elkarrengandik urrun izan arren. Globalizazio larrutzailearen aurrean, agian, jende sentsibleen arteko elkartasun mutuak salbatuko gaituela izan liteke telesaila dinamiko eta zinez positiboki ireki horren morala!

Hamahirugarren atala bukatu nuenean, otsaila hasmenta honetan, Baionako Antzokian *Karamazov* antzerkiaz gozatzeko zorte handia ukan dut –sarrera ordainduz, lasai. Jean Bellorinik (1981) kudeatu Saint Denisko Gerard-Philippe Zentro Dramatikoko taldearen hatsaren luzeak harritu ninduela aitortu dut. Ikusgarria muntatu zuten iragan udako Avignoneko festibalerako eta ARTE katean osorik irensteko aukera ukan nuen. *Karamazov Anaiak* nobela handiosean, *Sense 8* ukigarrian bezala, intriga poliziala bada, amodioa, jainkoari eta errusiar izateari buruzko agerpen metafisikoak, gizon sainduen urrin zizkolatsuak, zazpi ehun orrialde liburuan, lau oren eta erdi taula gainean. Bellorinik, moldaketa egiterakoan, André Markowiczen itzulpen berria aitzakotzat hartu zuen. Markowicz ari da azken urte hamarkada hauetan literatura errusiarra frantsesera berriz egokitzen, eta bereziki Fiodor Dostoievskiren eleberri zirraragarriak.

Ikusgarri terrible eta bozkariotsu baten garapena miretsi genuen, isilik eta hausnar pozgarrian urtuak. Hiru anaiak hor ziren: Alioxa apezgaia, Ivan ideologoa eta Dimitri dirua behar zuen bestagile sentimentala. Hor ziren halaber Fiodor aita zakarra, Grouchenka aitaren eta Dimitriren ohaidea, Ivan eta Dimitriren artean nor hauta ez zekien Katarina Ivanovna, Smerdiakov, Fiodoren seme bastarta, epileptikoa, menturaz hiltzaile materiala, Ilioucha ikaslea, Kolia sozialista gaztea... den-denak genituen begien jomugan, kementsu, oihuz, xuxurlaz, antzerkilarien molekuletan gorpuztuak. Argi jokoei esker tuaren zoharra eta kopetan behera isurtzen zitzaien izerdia agerian zegokigun: erraldoi... bistaz ezagutzen nuen –Santizpiritun bizi

delako- errusiar irakasle baten ahotik baimendu nezakeen testua egiazki hurbiletik errespetatu zutela egileek.

Lana eta Lili Wachowki eta Fiodor Dostoievski, garaiak salbu, antzekoak dira (barkatu konparaketak irakurle batzuk txokatzen baldin baditu, eta jakin ezazue ulertzen dudala). Biek jende izaeraren gunerik ilunenak arakatzen dituzte, bere baitan ernatzen zaion biolentzia uhin endemikoak, desesperatzeko arrazoiak. Baina ororen buruan etsipenik beltzenaren magmaren azpitik esperantza muskilak salbatzen saiatzen dira. Infernuaren muinetik ernatzen da bi obretan, sinesteko arrazoa, Bruce Springsteenek 1982an, Nebraska albumean, hain maisuki abestu zuen *Reason to believe* hura bera. Noski, ez da barda arratseko istorioa eta galderak erantzunik gabe geratzen dira: nor da hiltzailea? Nor da erruduna? Hiltzea pentsatu duena? Kolpea ekarri duena? Ala hilketa eragotzi ez duena? Taula gainean izan ezik, eskakizun horiek gure garunak ere inarrostean dituzte etengabe.

Dostoievskiren nobelak putzu sakonak dira, buruz behera erortzen goaz eta zolaren zolan gaudenean ez dugu aire sanora ilkitzeko gutizia izpirik. Ongi gara *Matrix* deituko genukeen literaturak eragin eromenaren mugetan.

Baina errealtatera bueltatu behar da. Gerardo Markuletaren *Denbora bere lekura* bilduma eskuan apnean gatoz ur gainera: *literaturak, batzuetan, hanka usain du(biok)*.

SAGANEN SAGA

Santizpiritu aldetik zubiaren maldan meditatzen pasatu dut herenegun, arratsaldearen parte handia. Zakurrekiko eskaleak nituen auzo, garagardo botilak tutunetik husten zituzten gazte taldeak, bi multzoak goraki eleka ari ziren baina ez zuten nire hausnarraren haria haustea lortu. Ez nuen oroitzeko gogorik eta ez nenbilen etorkizunean, antsiaz eta dudaz kateztaturik. Galdera pare bat neukan ezpain hegietan: gure lurak justiziaren ekonomia egiten ahalko ote du? Esku ukaldi soilaz ezabatzen ahalko dira borroka izenaz bataiatuiko urterik beltzenen aztarnak? Jasan eta eragin zauriak? Ez al da mozorroak bertan behera uzteko garaia?

Erantzunik ez neukan. Begiak ireki nituen. Aldamenean neukan liburuaz ohartu nintzen, bata besteari segika zebiltzan zakurren zaunka erlastuak hauteman bitartean. Nire zalantzaminean agian, hilabeteak hilabetetegi, irakurtzen ari nintzen Françoise Sagan handiaren hitzek salbatuko ninduten gaizto, etsi eta motel bilakatzetik. Bizi-poza alabaina atxikitzea da, eguneroko urratsen alorrean zer nahi gerta ere. *La femme fardée* bukatu berri eta *La Laisse* hastear nengoen, galderek eta zakur kokinaren ahokadek trabatzen ninduten arren. Badakit, irakurleen artean, aberezaleak badirela eta aitor dut, halaz ez nuela tette malina ostikadaz urruntzeko saiorik egin.

Bulta honetan arrats apaletako une hotzak pasatzen ditut Françoise Saganen konpainian. 1935 urtean sortu zen Carjac herrian eta 2004an utzi gintuen Honfleurko bere itsas bazterreko egoitzan. 1954an plazaratu zuen bere arrakasta egingo zuen eta Gerardo Markuletak *Tristezia, zer berri* (2014) tituluarekin euskarara ekarri *Bonjour Tristesse* ahantzezina. Literaturaren eremu ezberdinak jorratu zituen, nobelak, antzerkiak, artikuluak, zinegintza ere bai. Literaturatik jan eta edan zuen, zendu zenean hargatik semeari zor meta erraldoiak herentzian emanez, idazki publikatu bakar bat gabe ordea. Pariseko zirkulu kultuetan *le charmant petit monstre* erraten zioten eta haren energia bizitorea nahikoa estimatua zen. Idaztea pasio bezain urgentzia absolutuzko premia zeukan.

Gauzarik harrigarriena da nola liburuek eta idazle batzuek irakurlea ondu dadin itxoiten duten, hazi dadin, hozitu dadin bere orrialdeetako hitzak eta ideia mikatzak irentsi ditzan pasiboki eta isilik, erraiak eraldatzen nabarituz. Izkiriatzaileak, edo hauen ingumak aspaldian zenduak baldin badira, sasien gibelean zelatari daude, aiduru. Eta aski da lehen lerroa irenstea

harrapatua izateko, lepotik, ahotik, garunetik eta luzerako. Hala gertatzen zait niri, erbi urguilutsu edo xoxo beltz moko hori inozentearen pare, burdinazko xederak ebakitzen dizkidala oinak eta hegalak. Halatan eta ondorioz urteak iragaten ditut egile baten lagungoan, haren obra azken aditzeraino ustiatuz. Françoise Saganen aldia izan da aldion.

Bouquins saileko liburu mardula erosten dut, bigarren eskukoa, hamasei nobela biltzen dituen. Ez dut aspertzeko betarik. *Bonjour Tristesse* ospetsua berriz eta astiro irakurtzearekin hasi eta Saganen saga literarioan barnako bidaia ukigarria egin dut gauak joan, gauak etorri. Eleberriak pasatzen zitzaizkidan begi petik. Marcel Prousten pertsonaietako baten izena aukeratu zuen Françoise Quoirez gazteak, idazle nortasuna finkatzeko baina ez bakarrik hori. Prousten joera literarioa ere aurrerago eraman zuen, jendartea zirrikatuz, mundu burgesaren itzalak eta tatxak molde ironiko batean papereratuz adibidez. Saganen nobela bakoitza gozoki azukratu baten antzera ematen da ahora, baina zintzurrera iritsi orduko gustu zakar, mingar eta kiratsez zartatzen dela argi daukat.

Irakurketa betidaniko esperientzia intimoa da. Burka ilunez jantziriko hiru emazte hurbildu dira Santizpiritu zubiaren maldara markazko jantziz apaindu beraien hurrekin. Mundua kontraste bat da eta nire behinolako galderak ez dira hutsean urtu: bakeak, justizia eta egiaren zoruan errotu beharko du.

BIHAR HASTEN DA BERRIZ

Beti galdatzen diogu gure buruari, hain sailduta dugun literaturaren alorra, egunerokoan pasatzen diren gertakariekin uztartzen ahal dugunez. Egia erran, sailduta egun erruz letren gure mundutxo Etxahun Barkoxeren Kastero ospetsua bezain saildu bihurtu dugula uste dut... Gaira itzuliz, eder zait literaturak sartu behar ez lukeen zoko moko guztietan ikustea, nagi, trakets, ez-jakin, alfer, zalantzakor, behaztopatu eta perpausaren oreka bilatzen oraindik ere. Ildo horretatik, erakunde terroristaren armagabetzea, nik apirilaren lehenean iragarriko nuen, apirilaren zortzian baino. Baina ez dute euskal idazleek ETaren agenda sekula kudeatzea lortu.

Euskaldungoak ez zuen inoiz, larunbat bezainbat, *bake* hitza ezpainetan erabili, eta aldion ez zen soilik *Baque* kafea eskatzeko Baiona Txikiko tabernetako eguteretan. Goizeko ordu uherretatik arratsaldeko tenore urdineraino entzun genituen, taula gainetan eta mikro sotilen aitzinean, prediku handiosak egiten: azken orduko bakegileak zirela nioen, ondoan neukan itzalari, gehienek hondar lau hamarkadak gerra sustatzen iragan zituztelako, gerraren garapen haluzinatua ez salatzen bederen. Arma horiek, dena dela, hobe dira frantses (estatuko) botere judizialen eskuetan eta ez ideologo fanatizatuen ahurretan. Xinaurri batek xuxurlaturik daukat: aurten, Suediatik banatzen den Bake Nobel Saria Euskal Herrira etorriko da eta Txetxek JR Etxegarai Baionako auzapezarekin partekatu beharko du. Sari emailea jadanik aukeratua dute: Lisbeth Salander kuttuna.

Zutabegile zenbaitek *top* abiatzea eman digute. Orain txistek eta txantxak egiten ahal ditugu erakunde (des)armatuaren bizkar. Baina ziur nago, karia honetara, irri gutzia gutxi duen jende parrasta badela bazterretan, erailak izan diren 829 jatorri ezberdinetako herritarrak eta, agian, euskaldun hiritarrak beraiek, intelektualki kaltetuak izan zirelako mende erdi luzean zehar. Ez dezagula umorea galdu: apirilaren 8an, Baionan, ETaren ekinaren benetako derrota – zergatik izutzen gaituzte hitzek?– garaipen ikur distiratsuz apaindu zen eta diskurtsoak, literatura aldetik, egoera uherraren lekuko plazaratu ziren. Haietako bi geratuko dira memorieta: arratsalde eguzkitsu hartan Bakegileek lau hizkuntzetan irakurri zuten agiria, bata, eta bestea Urkullu lehendakariak Donostian eman zuena, aditz trinkoak erabiliz, *epika* eta *etika* eleekin hitz joko oroigarriari bidea eginez gainera.

Zutabe hau izkiriartzen dudan bitartean Espainiar (estatuko) telebistan Amaral abeslaria ikusten dut pantailan Picassoren *Guernica* margoaren maldan kantatzen, Reina Sofia erakustokian. Gogoan dut nola, apirilaren 6an, Beñat Axiari eta biok, Omar Souleimane eta Khouloud al Zghayare poeta siriarren olerkiak irakurri genituen, bi hizkuntzetan, Boujlalen oud musikaz eta Hannahren ahots sakonaz lagundurik, Zumetaren *Gernika* koloretsuaren itzalean, Baionan. Guernicatik Gernikara luzatzen da bakearen xendra. Musikari, basa-ahaide hegaldak arazle, hizkuntzen altzoan kulunkaz dabilizan eta *Fargo*-ren antzeko telesailek haziriko idazleen edo dantzari sinets ezinengatik baizik ez balitz, ez liteke nehoiz gerrarik piztuko, nehoiz. Zelan ez digute politikariek konfiantzarik egiten?

Euskal gizarteak oraindik ere armak amets dituela ohartzea harrigarria zait. Artikulu pare batean kausitu dut armen metafora irudimenari aplikatua, gardentasunari. Ez dira debaldetan higatu hamarkadak, adrenalina isuri zaigu zainetan, uste izan dugu borroka testosteronatsu maskulinista hori gure izenean eraman zela, gorrotoak egin gaitu eta herioak urratsak markatu dizkigu apirilaren 8ko ordutegi xehe ekumenikoraino. Agian *arma* elea ezabatu beharko genuke, euskal zereginenez mintzatzeko orduan. Halaber *borroka*. Hauen ordeztu urrikia, barkamena, damua eta maitasuna jartzeko.

Berri erraldoia daukat irakurleontzat: bihar hasten da *Nit I Dia* telesaila Kataluniako telebistan, bigarren sasoa, lehena bezain zirrargarria. Eta diot: hemendik aitzina dastatuko dugun biolentzia bakarrik fikziozkoa izan dadila.

AMETS TOTALITARIOAK

Frantziako lehendakari berriak amets bat dauka: bere herrialdea, hautsia eta elkar gorrotatzen duten bi partetan banatua irudikatzen du eta bera da gizon probidentziala, herrialdea bost urteetan artatuko, gozatuko, baketu eta gantzaz estaliko duena. Diskurtsoetan nahasten ditu erregeen denborako eta iraultzaren ondoko erreferentziak, eskuina eta ezkerre uztartzen dituela ikuspegi globalizatzaile totalitario bakarrean. Egoera larria izanki literaturaren uhinetara buruz behera jauzi egiteko ordua da.

Bi ildo nagusi urratu litezke: batetik, Hannah Arendt handiak, *Totalitarismoaren Jatorria* obra maisuan, politika mailako mugimendu etengabearen oldeetan faxismo neoliberalaren ezaugarriak finkatzen ditu eta bestetik Emile Zola trebeak 1896an plazaratu *Paris* nobelan, gaur bezala, sozialki eta politikoki apurtu estatuaren itxura eskaintzen zuen, III. Errepublikako gobernuak osatzeko airean zeuden ezker-eskuinak batzeko fantasmak jorratuz! De Staël andereak berak aspaldian berantetsia zuen *la république apaisée* haren etorrera!

En marche deitzen da Macronen atzetik dabilen saldoa, jendarte zibileko mailak oro biltzen omen dituela. Baina ikertzen bada klase ertaineko kideak dira gehienak, krisiagatik irabazle ateraiak: langile arrunt, laborari eta langabeturik ez da aurkeztuko aurten ere parlamenturako bozketan. Presidentea mintzo denean iluminatu baten predikua entzuten gaudela dirudi, aldi berean dirua maite duen printze makiavelikoa eta Napoleonen ondorengo zuzena izan nahiko balu bezala. Bizitza politikoaren globalizatzeko jaidura nabaritzen zaio eta kolonialismoaren erroetan bermaturiko Frantziaren handitasuna ez du ahanzten: *le monde et l'Europe ont plus que jamais besoin de la France*. Ez gutxiago. Bere zibilizazio misioan bederen sinesten du.

Iluminazio eta fede ateporalek sustatzen dituzten mugimenduak lanjerosak izan daitezke. Gatazkak zurruntzea eta leize sozialak berdintzea xede duten mesias neoliberal berrien politikez mesfidatu behar genuke. Gerra edo gerrilletako erailketak ekiditeko helburua ederra baldin bada, solasek, hizketaldiek, eztabaidek ez dute gelditzeko premiarik: jendarteak bizirik jarraitzeko eskubidea du, gertatzen dena kritikatzeko edo zergatik ez, sarkastikoki trufatzeko ere bai. Mutur eder batek (*Nit I Dia* telesaila katalaneko Clara Segurarena nahiago dudan arren) ez du baitezpada lehendakari ona egiten, bera baino bi hamarkada zaharragoa duen andreak *people* egunkarien zutabeak kitzikatuagatik: Trumpen zer bait bada Macronengan.

Emile Zolak (1840-1902) XIX mende bukaerako Frantziako garapen industrialaren urrats morbidoak hurbiletik idatzi zituen, bereziki Rougon-Macquard sagaren hogeit hamar liburuetan. 1987ko *L'Aurore* izparringiko *J'accuse* artikulua egilea zen, Dreyfus aferaren kariatara. Frantzia ebaki baten lekukotasuna ekarri zuen 1896an *Paris* eleberria plazaratu zuenean. Ravacholen trakako edo Europatik ihesean etorri anarkisten atentatu terroristak biderkatzen zeuden garaietan. Geriza sozialik gabeko herritarren miseria latza zen orduan eta aberats zein aristokraten opulenzia guztiz agerikoa. Idazleak, munduen artean, gaindiezinezko holtzak altxatzen ditu, fikzioaren bahea erabiliz.

Salvat anarkistaren gillotinatzea deskribatzen digu, labanak gizon gaizoaren lepoa moztu duen uneko zarata entzun arazten digularik, martirismo kolektiboari bidea irekiz. Deus galtzekorik ez zuela, Guillaume Froment ere sartuko zen baltsan, berak asmatu zartagailua pausatuz *La Commune*ko bekatuen expiatzeko eraikiriko Sacré-Coeur elizaren oinarrietan estreina egunean: ez zaituz nehoiz joan eliza zurbil horren bisitatzen, bertan ehortziak direlako langileen eta proletario biluzien desioak!

Atentatua ez zen obratuko eta behingoz Zolaren nobela bat *happy end* batekin bukatuko zen, anaien arteko malkoek troxaturiko mundu hobe baten xedea zizelkatuz. Debaldean: ez dira atzokoak frantsesen egungo minak, frustrazioak, herrak, zinkurinak eta ez dituzke Macronek soilik sendatuko.

ERREPUBLIKA PLAZA

Ekaina bero honetako arrastiri apaletan Santizpirituko Errepublika Plazara noa, hango platano zuhaitzen maldan bazterrei begira edo irakurtzen higitzeko. Betikoa, etxean ezin egon. Baina ba ote dago Baionan Katakarak argialetxeak duela gutxi publikatu duen Robert Menasse austriar pentsalariaren *Europar Mezularia* liburuxkaren irensteko leku zuzenagorik? Eneko Aizpurua idazleak ederki itzuli lanari esker eta plazan lerratzen diren jende multzoen itzaletan urturiko Europaren kontzeptu hain lardaskatu horretan berriz sinesten hasteko espaziorik egokiena zait. Ez da tokirik isilena: autoak, autobusak, motorrak, oinezkoak, lasterkariak, matoaz lagundurik karririk nekez zeharkatzen dituztenak aitzinetik pasatzen zaizkit eta soa orrialdetik gora altxatzen dut frankotan. Nire irakurraldia ez da jarraikiegia, ondikotz.

Iturriaren ondoan mundua biltzen dela iruditzen zait, mundua bere aniztasunean oparitzen zaidala eta nire egonaria eskaintzen diodala trukean. *Chronoplus* konpainiako bus geltokian metatzen direnak zoraturik begiztatzea aski dut: Maria portugesez haserretuz mintzo da eta Estefania asturiar lagunak gazteleraz erantzuten dio, debekatua izanagatik Ferdi kurduak tu egiten du lurrera, Lina eta Rikhy kanbodiarrak lagunkiro agurtzen naute, Modou senegaldarrak epako alegera helarazten dio Mohamed BFC jatetxeko jabeari, gazte taldeak trotinetekin jolasten dabilta zaharrak molestatzen eta gero irriz lehertzen dira NY grabatua dakarren burukoa hozkan emanez. Teresa, Pierro eta Joanes ere hor daudela ahanzi gabe, zuberotarrez mintzo lasaiki, bizitza *Forges de l'Adour* edo *Safam* ohiko burdin infernuetan higitu eta arras konkortuak. Ostiraletan arabarrak handizki apainduak dira, larunbatetan auzo honetako juduek kapelu zuri-urdinak ziztatzen dituzte ileetan eta igandeetan gizon-emazte astun bezain adinduak herrestatzen dira elizaraino mezaren entzuteko.

Eremu hertsian konfinatua bezala dago europar biztanle laginaren amets gaizto post-nazionala. Boteretsuen larderia eta manipulazioak kentzen baldin badira guztiok bakean biltzen gara eta gure harremanak lasaiki dira, batzuetan kexu puntuak nabaritzen diren arren. Behin, oihala garbitzeko makina hautsia nuelarik, plazako labanderiako –ez nintzen alta Jon Trollope-leihotik miresten nuen bizidunen batasun kalipuz bete eta bozkariotsua nola geldotu zuen urrunetik ziztuan, sirenak ozen, hurbildu zen polizia kotxe pare batek. Idoia Rodriguez Mondragon frantsesez izkiriartzen duen euskal idazlearen *Etats de Crises* ipuin bilduma nuen orduan eskuetan: egunerokotasun jabala bere hitzetan *thriller* zaintsu eta doietan pornografiko ankerra bilakatzen zen. Gustatzen zitzaidan, sobera. Baina Errepublika Plazan krisia suaren

antzera hedatu zen, gazteak txori txepelen moduan eta laurogei urtekoak ahal bezala barreiatzen segitzen nituen bitartean: ikusgarria karrikan dago beti.

Merkatua, Garruzen nola, ostiraletan da Santizpiritun ere. Ikurrinak, Che Guevararen potretak, Barçaren banderak eta rastafari distiratsuen lemekiko oihalak erosten ahal dira bertan. Halaber, kamioietatik erori markako zaku, gerriko, jantzi eta Bruce Lee eta Maggie Chungetik DVD merkeak. Orduan dira emakumeak etxeetatik jalgitzen, kopetatik oinetara burka eta nikab ilunez apainduak eta saltzaileen txosnetan erdi biluzirik lerratzen diren neskatxa furfuriadunen ondoan aurkitzen, bularretakoak eta zetazko kuleroak aukeratzeko tenorean. Arratsaldeko hiruak arte ausatzen dira zenbait eleka, hausnarrean, oihuz, azken bezeroak harrapatuko dituztela ustez. Ez dugu deusezen beharrik, kontsumoaren neurria apaltzen goaz, girgilaz mukuru dauzkagu etxeak: ahurreko lineak irakurriko dizkidazu?

Aitor bat zor dizut irakurle. Kanpoan beroegi egiten zuenean, *Lauhazka* hauek kometitzen iragan ditudan hiru urteotan, betazalak apaldu eta garunaren freskatzeko Minnesotako *Fargo* hirira eramanez dut izpiritua: elur urteak, blizzard haizeak, urritasun izoztuak, odolaren gorria zuritasun subliminalean, hondorik gabeko krimenak, Wendy Lopez eta Gloria Burgle ikerlariak itxuratu ditut (Letren) Errepublika Plaza honen minetik.

Baby we were born to run... barefoot!